

EAEkoekonomiaren hiruhilabetekaria

2020ko 1. hiruhilekoa

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA
Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMÍA
Dirección de Economía y Planificación

LABURPENA

Covid-19aren hedapenak munduko jarduera ekonomikoa hankaz gora jarri du. EAEko ekonomiaren kasuan, 2020ko lehen hiruhilekoan BPGaren urte arteko jaitsiera tasa %3,2 izan da, hiruhileko arteko kalkuluan %4,7ra iristen delarik. Bat-bateko beherakada hori 2019an lortu zen %2,2ko erritmo ia konstantearen ondoren gertatu da, eta martxoaren bigarren hamabostaldian ezarri zen alarma egoerari lotuta dago. Osasun alarmak funtsezkoak ez ziren jarduera guztiak geldiarazi zituen eta deseskalatze prozesua hasieran aurreikusitakoa baino luzeagoa izan da, ia bigarren hiruhileko osora luzatu baita. Horregatik, bigarren hiruhilekoan BPGaren jaitsiera lehenengoarena baino nabarmen handiagoa izatea espero da. Ekonomiaren bilakaera hori munduko herrialde gehienetan gertatu da, BPGan beherakada nabarmenak izan baitituzte. Hala, euroguneak %3,1 egin du behera urtetik urtera, eta %3,6, berriz, hiruhilekotik hiruhilekora.

Europako herrialde askotan konfinamenduko erabakiak hartzeko orduan erabili den sinkroniak kanpo merkataritza geldiarazi du. Martxoaren bigarren hamabostaldian, ia bere osotasunean mugatu ziren norbere lurraldetik kanpo saltzeko eta erosteko aukerak. Hamabostaldi horren eragina oso handia izan zen eta hiruhileko osoko esportazio errealak %7,5 jaitsi ziren; inportazioak, berriz, %7,3 gutxitu ziren. Bilakaera horien ondorioz, kanpoko saldoak ez zion inolako ekarpenik egin BPGren hazkundeari.

Martxoaren erdialdera arte kapitalaren eraketa gordinak erakusten zuen dinamismoa bertan behera geratu zen une hartan, zeren eta jarduera denbora jakin batez geldiarazteak hainbat inbertsio proiektu gauzatzea eragotzi baitzuen. Oro har, magnitude hori ez zen berriro ekonomia osoaren batez bestekoa baino gehiago hazi eta %3,6ko murrizketa izan zuen. Jaitsiera handiagoa izan zen ekipamendurako ondasunen atalean (-%5,0), baina gainerako inbertsioari ere, eraikuntzako jarduerak barnean hartzen baititu, eragin zion (-%2,8).

Konfinamenduaren ondorioetako bat merkataritza eta ostalaritza ia erabat ixtea izan zen. Horrek familien gastu aukerak baldintzatu zituen, eta, kontsumo horren zati bat Interneteko plataformetara bideratu bazen ere, kontsumo pribatua %4,8 murriztu zen lehen hiruhilekoan. Aitzitik, kontsumo publikoak nabarmen egin zuen gora aldi horretan (%4,1), pandemiak agerian utzi zituen osasun eta gizarte premiengatik.

Sektoreen ikuspegitik, lehen arloak bakarrik handitu zuen bere balio erantsia (%3,5), elikadura funtsezko jardueratzat jo zelako. Bestalde, eraikuntzak bere jardueraren zati bati eutsi zion, baina ez zen nahikoa izan tasa positiboan jarraitzeko (-%2,7), eta, aldi berean, industriak bere balioaren zati handi bat galdu zuen (-%3,6).

Pandemiak zerbitzu pribatuak kaltetzen ari dira bereziki. Sektore osoak %2,8 murriztu zuen bere balio erantsia, baina administrazio publikoari, hezkuntzari, osasunari eta gizarte-zerbitzuei lotutako jarduerak, horiek guztiak funtsezko jarduerak baitira, %1,2 handitu zuten balio erantsia. Aitzitik, urruntze neurriek eragin handia izan dute merkataritza, ostalaritza eta garraioan eta jarduera horien balio erantsia %4,2 jaitsi zen lehen hiruhilekoan. Halaber, normaltasunera itzultzeko denbora gehien beharko duten jarduerak dira, eta, beraz, ez da epe laburrean susperraldirik sumatuko. Gainerako zerbitzuek (-%4,0) merkataritzaren eta ostalaritzaren antzeko portaera erakutsi zuten.

Jardueraren gelditzeak eragina izan zuen enpleguan, lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta, %2,8ko beherakada izan baitzuen. Tasa horrek adierazten du 27.700 enplegu galdu direla duela urtebete zeudenekin alderatuta, eta 37.600 lanpostu, berriz, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta. Beste modu batean esanda, hiruhileko bakar batean galdu da azken bi urtean sortutako enplegu guztia. Balio absolutuan, kalte handiena jasan zuen sektorea zerbitzuena izan zen; hala eta guztiz ere, urte arteko tasak negatiboagoak izan ziren eraikuntzan eta industrian (-%3,4 bi kasuetan, zerbitzuen -%2,7ren aldean).

Jarduera gelditzearen ondorioz ager daitezkeen arriskuak bat deflazioa da. Lehen hiruhilekoan, BPGaren deflatoarea %0,6 baino ez zen igo, baina apirilean, prezioen azterketan erreferentzia nagusietako bi, hots, KPI eta IPRI indizeek, urte arteko tasa negatiboak izan zituzten jada. Lehenengo kasuan, kontsumoko prezioak %0,5 merkatu ziren urte arteko tasan, eta industriako prezioak, berriz, %4,6. Petrolioaren prezioaren bilakaera da prezioen indizeen jaitsiera hori azaltzen duten arrazoiak bat, baina, industriaren sektorean bereziki, prezioak ez igotzea merkatu kuotari eusteko estrategia bat da.


Azken hiru hilabeteetan, ekonomia nagusietarako aurreikusi diren eszenategi makroekonomikoak behin eta berriro eguneratu dira. Euskadi ez da salbuespena, eta aurreko buletin ekonomikoan BPGaren %3,6ko jaitsiera aurreikusten bazen, oraingo egoeran urte arteko tasa -%8,7koa da. Argitaratu diren EAEko ekonomiarako aurreikuspenen panoramaren barruan, Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzaren koadro makroekonomikoa ezkorrena da. Hala eta guztiz ere, hainbat erakunde Espainiako ekonomiarentzat egin dituzten estimazioen ildotik doa. Oro har, BPGren bat-bateko jaitsiera espero da bigarren hiruhilekoan, eta, aurreikuspen horren arabera, -%13,4ra iritsiko da. Hiruhileko hori krisi honetako punturik baxuena izango da. Hortik aurrera, suspertze fase bat hasiko da, baina aldakuntza tasa positiboak ez dira 2021eko bigarren hiruhilekora arte iritsiko. Urte horretan, BPGa %6,7 handituko da, aparteko balioa baita, baina ez da nahikoa izango EAEko ekonomiari 2019an izan zuen mailara itzularazteko. Era berean, aurtan 68.100 lanpostu galduko direla aurreikusten da, eta datorren urtean 47.900 lanpostu sortuko direla. Egoera horretan, langabezia-tasa %13,7ra igoko da aurtan, eta %12,2ra jaitsiko da 2021ean.

EKONOMIAREN INGURUNEA


2020ko lehen hiruhilekoari dagozkion adierazle ekonomikoek agerian uzten dute Covid-19ko pandemiak munduko ekonomian izan duen eragin negatibo sakona, apirilean sakondu zena. Munduko jardura ekonomikoan ezarri ziren murrizketen ondorioz, ekoizpenak, eskaera berriek, esportazioek eta erosketek inoizko erritmo bizkorrean egin zuten behera. Manufakturen sektoreko eta zerbitzuen sektoreko datuak dituzten herrialde guztiek aurrekaririk gabeko uzkurdurak jasan dituzte aurtengo lehen hilekoetan. Hala baieztatzen du apirilko munduko PMI konposatuak, 26,5eraino murriztu baitzen, nazioarteko finantza krisian izan zuena baino uzkurdura handiagoa baita; garai hartan 36,8ko balioa lortu zuelako. Maiatzean erregistroak nabarmen hobetu ziren arren, oso maila apaletan jarraitu zuten, eta, beraz, krisia urteko bigarren hiruhilekoan areagotuko dela aurreikusten da.

Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak

ELGE



Txina



Iturria: ELGE.

Munduko ekonomia murgilduta dagoen atzeraldiaren tamainak ez du aurrekaririk azken hamarkadetan. Bigarren Mundu Gerrara jo behar da antzeko tamainako jardueraren erorketak aurkitzeko. Txinak, pandemiak kaltetutako lehen herrialdeak, %6,8ko beherakada historikoa izan zuen lehen hiruhilekoan, Covid-19aren inpaktuaren eta herrialdean ezarri ziren eusteko neurrien ondorioz. Oraingoa da serie historiko osoan, 1992. urtean hasi dena, Asiako erraldoiaren jardura ekonomikoaren lehen beherakada. Sektore guztiak oso kaltetuta geratu ziren; lehen sektorea %3,2 uzkurdu zen, eta zerbitzuen sektorea, berriz, %5,2; industriakoak, bere aldetik, %9,5 egin

zuen behera. Era berean, 2020ko lehen hiru hilabeteetan zehar, aktibo finkoetan egindako inbertsioak %16,1eko beherakada izan zuen urte arteko tasan, urtarrilean eta otsailean izandako %24,5eko beherakada neurri batean motelduz, Txinako agintariak martxoan pandemia kontrolatzeko ezarritako murrizketak altxatzen hasi zirenean. Badirudi martxoko eta apirileko datuek Txinak okerrera atzean utzi duela adierazten dutela, nahiz eta ekoizpenaren eta kontsumoaren susperraldia espero baino motelagoa izaten ari den. Halaber, beste agerraldi baten aukerak bere horretan dirau.

Mexikok eta Brasilek ez zuten murrizketekin eta konfinamenduarekin hasi martxoaren amaierara arte, eta, ondorioz, beren ekonomiek uzkurduz apalagoak izan zituzten, -%2,2 eta -%0,2 hurrenez hurren. Mexikoko ekonomian, sektore kolpatuenak merkataritza eta zerbitzuak izan ziren, baita industriaren jardura ere. Brasileko ekonomian, berriz, isolamendua eta berrogeialdia modu zorrotzean bete ez izanak inbertsioari eta inportazioei aurrera egitea ahalbidetu zien, kontsumo pribatuaren eta esportazioen jaitsiera neurri batean konpentsatu baitzuten. India, berriz, urteko lehen hiruhilekoan haztea lortu zuten garapen bidean dauden ekonomia bakanetakoa izan zen. Kontsumo pribatuaren zein publikoaren sendotasunak, inbertsioaren eta esportazioen beherakada konpentsatu zuen, eta BPGari %3,3 haztea ahalbidetu zion. Bigarren hiruhilekorako aurreikuspenak argi eta garbi latzagoak dira haientzat guztientzat, konfinamendua eta, horrekin batera, jardueren itxiera luzatu zen aldia baita.


Oro har, pandemiak kalte handia egin zien herrialde garatuei ere. Zehazkiago adierazita, ELGEren barne produktu gordina %0,8 jaitsi zen, azken urtean %1,6aren inguruko erritmo batean hedatu ondoren. ELGEko zazpi ekonomia handien artean, AEBek lortu zuten hazkunde tasarik handiena, urte arteko %0,2ko hedapenarekin. Italiak, berriz, uzkurtze handiena jasan zuen, BPGak %5,4ko jaitsiera izan baitzuen. Zehatz-mehatz adierazita, AEBetan, Covid-19aren kaltea martxoaren amaierara murriztu zen nagusiki, eta, beraz, haren jardura ekonomikoak %0,2ko hazkundea lortu zuen, kontsumo pribatuaren gorakadari esker soil-soilik, BPGri hamarrenak eman zizkion agregatu bakarra izan baitzen. Hiruhileko arteko tasetan, herrialde hartako BPG %5,0 jaitsi zen, joan den hamarkadako Atzeraldi Handiaz geroztik izandako beherakadarik nabarmenena delarik. Pandemiak AEBetako ekonomian berandu eragin arren, bertako langabezia tasak nabarmen egin zuen behera martxotik aurrera, orduan ehuneko puntu bat igo baitzen, %3,4raino, baina apirilean %14,7raino iritsi zen, serie historiko osoan, 1948an hasten baita, inoiz izan den tasarik handiena dena. Maiatzean, ordea, zertxobait jaitsi zen, %13,3ra arte.

Hedapen jardura horretatik urrun kokatu ziren gainerako ekonomia aurreratu nagusiak. Esate baterako, Japonia %1,9 jaitsi zen atzeraldi teknikoan sartu zen lehen aldiz 2015etik, 2019ko laugarren hiruhilekoan herrialde hartako BPGak %0,7ko atzerakada izan ondoren, BEZaren igoerak eta tifoiek ekarri zituzten eragin kaltegarriaren ondorioz. BPGaren agregatu guztiak, kontsumo publikoa izan ezik, amildu egin ziren. Esportazioak bereziki uzkurdu ziren (%6,0) eta


bost hiruhileko jarraian jaitsi ziren. Langabezia tasa egonkor samar mantendu zen, goranzko joera txiki batekin. Izan ere, 2019ko abenduko %2,2tik 2020ko apirilko %2,6ra igaro zen. Hiruhileko berean, inflazio tasa %0,1era jaitsi zen, eta horrek zaildu egiten du Japoniako Bankuak ezarritako %2,0ko inflazioa lortzea.

Munduko ekonomia. BPGa Urte arteko hazkunde tasak

AEB



Eurogunea



Iturria: Eurostat eta ELGE.

Euroaren eremuan ere, lehen hiruhilekoko datuak koronabirusaren eragin suntsitzailea islatzen du. Zehazkiago, eremuak %3,1 egin zuen behera, 1995ean seriea hasi zenetik inoiz izan den jaitsierarik nabarmenena, eta 2009ko erdialdean, Atzeraldi Handian, jaso ziren beherakadarik txarrenekin parekatzen da. Kontsumo publikoak, inbertsioak eta inportazioek hamarren batzuk eman zizkieten jarduerari, baina guztien artean ez zuten kontsumo pribatuaren uzkurdua konpentsatzea lortu, BPGari 1,7 puntu kendu baitzizkion. Esportazioen beherakada handiak jarduera ekonomikoa hondatu zuen. Eurogunea osatzen duten 19 herrialdeetatik hiruk soilik, Irlandak, Ziprek eta Lituaniak, lortu zituzten hazkunde positiboak urteko lehen hiruhilekoan. Gainerako herrialdeetan datuak izugarriak izan ziren. Jaitsiera tasak Italiako -%5,4aren eta Finlandiako zein Herbehereetako -%0,7aren artean kokatu ziren. Halaber, itxura guztien arabera, bigarren hiruhilekoko datuak askoz ere beherakada handiagoak islatuko ditu, lehen hiruhilekoan ez baitziren birusaren aurkako euste neurriak hartu martxoaren azken bi asteak arte.

Herrialdeka, Italia izan zen pandemiaren eraginak gehien kaltetu zuen euroguneko eta 27 kidez osatutako Europar Batasuneko herrialdea, bai maila ekonomikoan bai sanitarioan, batez ere

heriotza tasa handiagatik. Hori ez da harritzekoa; izan ere, pandemia otsailaren 21ean lehertu zen herrialde horretan, eta, ondorioz, Italia izan zen bere lurralde osoaren gaineko blokeo bat ezarri zuen Europako lehen herrialdea. BPGaren osagai guztiak izugarri jaitsi ziren, bereziki kontsumo pribatua, inbertsioa eta esportazioak, eta horrek ekarri zuen bere jarduera ekonomikoa %5,4 uzurtzea. 1995eko lehen hiruhilekoan Istat serie horri buruzko datuak biltzen hasi zenetik izandako atzerakadarik handiena da.

Frantziak, berriz, %5,0ko beherakada izan zuen, 1975etik izandako beherakada handiena, garai horretan hasi baitzen bere serie historikoa. BPGaren agregatu guztiak jaitsi egin ziren, inbertsioa (-%8,1) eta kontsumo pribatua (-%4,5) intentsitate bereziarekin, eta bai barne eskariak bai kanpokoak hamarren batzuk kendu zizkieten BPGari. Alemaniak, berriz, antzeko bilakaera erakutsi zuen. Kontsumo pribatuak atzerakada handia izan zuen (-%2,8), ekipamenduetan egindako inbertsioek bezala, bereziki makinetan, gailuetan eta ibilgailuetan; aldiz, gastu publikoa eta eraikuntzako inbertsioak egonkor mantendu ziren, eta BPGaren jaitsiera handiagoa saihestu zuten. Ondorioz, jarduera ekonomikoa germaniarrak %2,3 egin zuen behera. Hiruhileko arteko tasan, Italiaren, Frantziaren eta Alemaniaren bilakaera are kezagarriagoa da, bi hiruhileko jarraian pilatu baitzituzten jaitsierak, eta horrek atzeraldi teknikoko egoeran jartzen ditu.

Espanian, 2020ko lehen hiruhilekoko BPGaren datuak berretsi zuen Covid-19aren hedatzea geldiarazteko ezarri ziren konfinamendu neurriek eragin handia izango zutela jardueran. Hain zuzen ere, Espainiako BPGa %4,1 amildu zen. Jaitsiera garrantzitsu hori espero izatekoa zen, konfinamenduko neurrien gogortasuna eta turismo-sektorearen garrantzia kontuan hartuta, krisiak Espainiako ekonomian eragin larria izan duen sektorea baita. Izan ere, zerbitzuetan beherakada handienak arte, jolas eta beste zerbitzu batzuetako jardueretan (-%10,7) eta merkataritza, garraio eta ostalaritzan (-%9,7) hauteman ziren. Eskariari dagokionez, Espainiako BPGak nabarmen nabaritu zuen familien kontsumoaren (-%6,7) eta etxebizitzako inbertsioaren (-%11,9) beherakada bizia, bai eta esportazioen eta inportazioen hondoratzean ere (hurrenez hurren, -%6,3 eta -%7,4). Aitzitik, gastu publikoak azeleragailua zapaldu zuen urtarriletik martxora bitartean eta %3,3 hazi zen, azken bi urtean izan duen gorakadarik handiena.

Europar Batasunetik kanpo, Erresuma Batuko jarduera ekonomikoa %1,6 egin zuen behera, agregatu guztien uzurtze orokortuarekin. Enpresen inbertsioak eta kontsumo pribatuak bereziki pairatu zuten kaltea. Eskaintzaren aldetik, farmaziako produktuen sektoreak eta informatikako asistentziak bakarrik lortu zuten tasa positiboetan irautea.

Eragin handia izan arren, eta bigarren hiruhilekoa askoz ere suntsitzaileagoa izango dela dirudien arren, ekonomia nagusi guztiek uste dute Itxialdi Handiak eragindako krisia aldi baterakoa izango dela, eta 2021ean BPGak hazkunde bizia lortuko duela aurreratzen dute.

EAE-KO EKONOMIA

Ekoizpena eta enplegua

EAEko ekonomiak, 2020ko lehen hiruhilekoan, BPGaren serie historiko osoan aurkitu daitekeen beherakadarik bortitzena erregistratu zuen, %2,2ko hazkunde positibotik urte arteko -%3,2ko tasara igaro baitzen. Egia da 2009an aipatu den hori baino tasa negatiboagoak erregistratu zirela, baina modu mailakatuagoan gertatu ziren. Bat-bateko zeinu aldaketa hori, Covid-19 geldiarazteko hartutako konfinamenduko neurrien ondoriozkoa baita, munduko ekonomia gehienetan ere gertatu da. Hala, euroaren eremu osoak %3,1 galdu zuen, Alemaniak, berriz, %2,3, Frantziak %5,0 eta Espainiak %4,1.

ESKAINTZAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2019				2020
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	3,0	2,2	2,2	2,2	2,1	2,2	-3,2
Nekazaritza eta arrantza	7,9	0,6	1,7	-0,1	0,2	0,4	3,5
Industria eta energia	2,5	1,1	0,4	1,0	0,8	2,3	-3,6
- Manufakturen industria	2,8	1,0	0,4	0,9	0,5	2,1	-4,3
Eraikuntza	4,1	3,1	4,6	3,2	2,9	1,9	-2,7
Zerbitzuak	2,7	2,5	2,6	2,5	2,5	2,2	-2,8
- Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	4,0	2,4	2,9	2,5	2,3	2,1	-4,2
- AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,1	2,2	2,3	2,3	2,4	1,9	1,2
- Gainontzeko zerbitzuak	2,2	2,6	2,7	2,6	2,7	2,4	-4,0
Balio erantsi gordina	2,8	2,2	2,2	2,2	2,1	2,2	-2,9
Ekoizkinen gaineko zerga garbiak	4,9	2,1	2,2	2,1	1,8	2,3	-5,1

Iturria: Eustat.

Martxoaren bigarren hamabostaldian ezarritako jarduera geldiarazteak EAEko ekonomiaren sektore nagusi guztiei eragin zien, lehen sektoreari izan ezik, azken hau funtsezko jardueratzat jo baitzen. Aurtengo lehen hiruhilekoan, inpaktu handiena industrian hauteman zen (-%3,6), batez ere manufakturretan (-%4,3). Horrela, sektoreak 2019ko amaieran iradokitzen zuen susperraldi hasiberriari amaiera ematen zaio, AEBek hasitako muga zergen alorreko gerrak, Brexitaren ziurgabetasunak eta Europan ibilgailuen isuriei ezarritako neurri berrien eta

mugikortasun berrirako trantsizioaren ondoriozko automobilgintzaren krisiak sortutako zailtasunen ondoren.

JARDUERA ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2019				2020
			I	II	III	IV	I
Industria							
Industria produkzioaren indizea	2,2	1,6	0,9	1,5	1,4	2,6	-4,7
Negozio zifren indizea	5,8	-0,6	2,5	-3,8	-2,1	1,1	-11,2
Industria giroaren indizea	-7,1	-8,3	-11,0	-4,1	-6,7	-6,5	-11,0
Gizarte Segurantzako afiliazioa	1,8	0,6	1,1	0,8	0,3	0,1	-0,8
Eraikuntza							
Eraikuntzaren koiuntura indizea	12,3	8,7	11,8	7,2	6,9	9,1	1,9
Etxebizitza berriak eraikit. oniritziak	20,3	-7,1	30,0	-1,6	-23,2	-23,5	-26,4
Etxebizitzaren salerosketak	13,8	-1,0	12,4	-3,0	-11,4	-2,8	-18,0
Gizarte Segurantzako afiliazioa	3,6	3,0	4,0	3,7	2,5	1,9	1,3
Zerbitzuak							
Hegazkinen bidezko bidaiariak	10,5	8,5	7,4	10,6	10,2	4,9	-20,9
Hoteletan igarotako gaualdiak	7,2	3,7	3,7	6,6	3,6	0,5	-21,6
Negozio zifren indizea	7,4	4,2	5,0	3,7	4,8	3,5	-5,1
Zerbitzuen koiuntura indizea	1,1	0,9	1,7	0,8	0,5	0,6	-5,4
Gizarte Segurantzako afiliazioa	2,1	2,3	1,8	2,1	2,7	2,6	2,1

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, INE, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerio, Sustapen Ministerio, Gizarte Segurantza eta AENAREN datuetan oinarrituta.

IPIaren azterketak iradokitzen du industriaren bilakaera positiboa izan zela otsailera arte, eta martxoan gauzatu zela jardueraren bat-bateko beherakada, apirilean ere jarraipena izan zuena, argitaratutako azken datua hori baita. Zehazkiago, martxoko IPIaren urte arteko tasa $-\%15,0$ izan zen, baina apirilekoa $-\%39,1$ eraino iritsi zen. Azken hilabete horretan, indize orokorra osatzen duten ondasun multzo guztiak negatiboan zeuden. Energia eta kontsumo iragankorreko ondasunen ekoizpena salbuespenak izan ziren martxoa arte eta tasa positiboak erregistratu zituzten. Hala ere, apirilean jaitsiera oso esanguratsuak izan zituzten ($-\%7,9$ eta $-\%17,7$, hurrenez hurren). Dena dela, tasa horiek bitarteko ondasunei ($-\%45,8$), ekipokoei ($-\%48,5$) eta kontsumo iraunkorrari ($-\%47,0$) dagozkienetatik urrun daude.

Koronabirusak sortutako ziurgabetasunak eta haren hedapen azkarrak industria sektorearen igurikimenei eragin die, Industria Ministerioaren datuekin osatzen den industria klimaren indizetik ondorioztatzen denez. Zehazkiago adierazita, lehen hiruhilekoan adierazle horrek -11,0 balioa izan zuen, aurreko datuak baino pixka bat txikiagoa baino ez dena eta oraindik ondorengo paralisia iradokitzen ez zuena. Hala ere, apirilean, konfinamenduko neurriak abian zirela, indizea -31,1era jaitsi zen, eta, ondoren, -36,2ra, maiatzean. Adierazlearen bi osagai esanguratsuenak, hots, eskaera zorroa eta ekoizpenaren joera, -55etik beherako balioetan daude. Zifra horiek guztiek 2009ko egoerara garamatzate.

Eraikuntzaren sektoreak moteltzeko joera erakutsi zuen 2019an zehar, baina ez zen aurreikusten beraren balio erantsia %2,7 jaitsiko zenik 2020aren hasieran. Martxoaren bigarren hamabostaldian obrak gelditzeak sektorearen bilakaeran zeinu aldaketa hori eragin zuen. Eraikuntzaren koiuntura indizeak erakusten du hartutako neurriek kalte handiagoa izan zutela obra zibilean eraikinen atalean baino. Lehenengo kasuan, urte arteko jaitsiera tasa %4,2 izan zen, baina bigarren osagaiak oraindik ere hazkunde positiboa lortu zuen bere jardueran (%2,8), baina 2019ko batez bestekotik (%9,2) oso urrun. Azkenik, etxebizitzaren alorreko adierazle batzuek, hala nola obra berrirako baimenek eta etxebizitzaren salmentak, beherakada handiak izan dituzte azken hilabeteetan.


Oro har, zerbitzuen sektoreak bere balio erantsia %2,8 gutxitu zuen lehen hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta. Beherakada horrek azken bost urtean jarduera talde horrek erakutsitako ibilbide onari amaiera ematen dio, horietan %2,0tik gorako aldakuntza tasak lortu baitzituen. Lehen hiruhilekoko datuak jokabide kontrajarriak ezkututzen ditu, zerbitzu publikoak edo pribatuak diren kontuan hartuta. Izan ere, administrazio publikoaren, hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte zerbitzuen taldeak barne hartzen dituen jarduerak urte arteko %1,2ko igoera izan zuten, pandemiari erantzuteko beharagatik. Aitzitik, jarduera pribatuek ezin izan zuten beren jarduera martxoaren bigarren hamabostaldian garatu, eta haien balio erantsia %4,0 inguru murriztu zen.

Koiunturazko informazio berrienak berresten du bigarren hiruhilekoko balio erantsiaren beherakada lehenengoarena baino nabarmen handiagoa izango dela, alarma egoeran hartutako neurriak udaberriko hiru hilabeteen zati handi batera luzatu zirelako. Zerbitzuei dagokienez, turismoari buruzko apirileko datuek (hoteletan igarotako gaualdiak eta aireko trafikoa) %95etik gorako urte arteko beherakadak erregistratu zituzten, serie historikoan inoiz ez bezala. Espero izatekoa da maiatzean antzeko erregistroak jasotzea, eta ekainean zertxobait hobeak. Beste alde batetik, apirileko txikizkako merkataritzak urte arteko %27,2ko beherakada izan zuen, Atzeraldi Handian erregistratutako beste edozein baino askoz jaitsiera handiagoa baita.


Lehen hiruhilekoan BPGak izan zuen beherakada handiak (-%3,2) antzeko jaitsiera ekarri zuen enpleguan (-% 2,8), lanaldi osoko lanpostu baliokidetan neurtuta. Kontzeptu hori BPG horretara iristeko behar izan diren lan orduen kopuruari dagokio, lanaldi osoko jardunalditan multzokatuta. Kontuan izan behar da salbuespenetzko egoera horretan modu masiboan erabili dela ezinbesteko ABEEEaren (aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteak) figura, pertsonei beren enpresarekin lotura bat izateko aukera ematen diena, lanik egin ez duten arren. Horrek azaltzen du kontu ekonomikoetako enpleguaren bilakaeran (aipatutako -%2,8 hori) eta aldi bereko Gizarte Segurantzako afiliazioarenean (% 0,6) dagoen aldea.

Enpleguaren bilakaera Urte arteko aldakuntza tasak

Kontu ekonomikoak



Afiliazioa



Iturria: Eustat eta Gizarte Segurantzak

Enpleguaren eragina 27.700 lanpostu galdukoa da 2019ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta (urte arteko aldakuntza), eta 37.600 lanpostukoa, berriz, 2019ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta (hiruhileko arteko aldakuntza). Ehunekotan, urtetik urterako beherakadak handiagoak izan ziren industrian eta eraikuntzan (-%3,4), baina zerbitzuen tamaina handiagoa denez, kopuru absolutuetan sektore horrek kontzentratu zituen galdutako enplegu gehienak. Izan ere, galdutako enpleguetatik 18.400 inguru hirugarren sektoreko jardueri zegozkien; industrian, berriz, 7.100 ziren, eta eraikuntzan, 2.000. Gainerako berrehun lanpostu lehen sektoreari dagozkio.

Apirilko eta maiatzeko Gizarte Segurantzako afiliazioaren datuek, bestelakoa ezin zenez izan, aurreikusten dute bigarren hiruhilekoan beherakada askoz handiagoa izango dela lehenengoan

baino. Izan ere, apiriletik aurrera urte arteko tasa negatiboak erregistratu ziren estatistika horretan, maiatzean $-2,3\%$ iritsi zirenak, nahiz eta ABEEek enpleguari eutsi. Ekaineko datua nabarmen okerragoa izango da, hilabete horretan bertan behera geratuko baita duela urtebete profesional ez diren zaintzaileak afiliazioen estatistikan sartu izanak izan zuen eraginaren zati handi bat, emaitza osoari sei hamarren inguru eragiten baitio.

Jarduera adarren arabera aztertuta, beherakadak nahiko orokorrak izan dira, salbuespen bakarrak osasun jarduerak eta gizarte zerbitzuak biltzen dituen taldea ($8,9\%$) eta administrazio publikoa ($0,4\%$) direlarik. Horietatik urrun, afiliazioen beherakadak oso esanguratsuak izan dira EAEko egitura ekonomikoan pisu handiena duten adarretan, hala nola ostalaritzan ($-7,7\%$), administrazio jarduerak eta zerbitzu osagarrietan ($-7,8\%$), manufacturatan ($-3,5\%$) eta merkataritzan ($-2,9\%$).

Atzeraldi une batean produktibitatearen irabazia aztertzea nahasgarria izaten da, zeren eta eraginkortasunaren itxurazko hobekuntza hori ez baita lortzen ekoizpen faktoreak hobeto erabiltzearen ondorioz, baizik eta lan faktorea gehiago edo gutxiago murriztearen ondorioz. Lehen hiruhilekoan, izan ere, produktibitate galera egon zen ($-0,3\%$), enpleguaren jaitsiera BPGarena baino txikiagoa izan zelako. Hori ohikoa izaten da atzeraldi baten lehen unean, enpresek langileak atxikitzen dituztelako inpaktuaren intentsitatea ikusi arte, baina hiruhileko bat edo bi baino gehiago ez du irauten. Industriak eta zerbitzuek beherakada txikiak izan zituzten produktibitatearen bilakaeran.

Barne eta kanpo eskaria

Eskariaren aldetik BPGari egindako ekarpenen analisiak adierazten du lehen hiruhilekoko jaitsiera ia osoa barne eskariaren eskutik etorri zela, kanpo saldoak posizio neutroa izan zuen bitartean. Izan ere, kanpo ekarpena hutsala izan zen, zeren eta bai esportazio errealek bai inportazio errealek urte arteko beherakada esanguratsuak eta antzekoak izan zituztelako. Zehatzago adierazita, esportazio errealak $7,5\%$ murriztu ziren 2020ko lehen hiruhilekoan, aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, eta inportazio errealak, berriz, $7,3\%$ jaitsi ziren. Martxoan sortu zen ezohiko egoerak, ezinbestekoak ez diren jardueren erabateko paralisarekin, beste lurralde batzuetan saltzeko aukerari eragin zion, baina baita lurralde horietan erosteko aukerari ere, kanpo saldoaren terminoetan, aipatutako emaitza utziz.

Horiek horrela izanda, jaitsiera guztia barne eskariaren magnitude ekonomikoetan gauzatu zen, bai kontsumoan bai kapital eraketa gordinean. Ia ez dago alderik bi aldagaien artean, zeren eta

azken kontsumoaren jaitsiera tasa %3,0 izan baitzen eta inbertsioarena, berriz, %3,6. Horren ondorioz, barne eskari osoa %3,1 murriztu zen, eta BPGari 3,2 puntuko ekarpen negatiboa egin zion.

ESKARIAREN ALDAGAIK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2019				2020
			I	II	III	IV	I
BPG erreala	3,0	2,2	2,2	2,2	2,1	2,2	-3,2
Gastua azken kontsumoan	2,5	1,9	2,1	1,9	1,9	1,7	-3,0
- Familien gastua kontsumoan	2,7	1,9	2,2	1,9	1,8	1,5	-4,8
- Adminis. gastua kontsumoan	1,6	2,1	1,9	2,1	2,2	2,2	4,1
Kapital eraketa gordina	4,7	2,8	4,0	2,5	2,2	2,4	-3,6
- Ekipamendu ondasunak	3,7	2,3	3,3	2,2	0,8	2,9	-5,0
- Gainontzeko inbertsioa	5,2	3,0	4,4	2,6	2,9	2,1	-2,8
Barne eskaria	3,0	2,1	2,6	2,0	2,0	1,9	-3,1
Esportazioak	3,0	0,4	-1,4	2,8	-0,9	1,3	-7,5
Inportazioak	3,0	0,4	-0,8	2,6	-0,9	0,9	-7,3

Iturria: Eustat.

Azken kontsumoaren barruan, jokabide kontrajarriak gertatu ziren berau osatzen duten bi magnitudeetan. Alde batetik, alarma egoeraren ondoriozko konfinamenduko neurriek ohiko kontsumo jarduera batzuk garatzea eragotzi zuten, oinarrizko produktuak erostetik edo Interneteko plataformak baliatuzetik harago. Hori dela eta, martxoko bigarren hamabostaldiko ezohiko portaerak hiruhilekoaren urte arteko tasa $-\%4,8$ raino arrastatu zuen. Balio hori nabarmentzen da zeinu aldaketa bat-batean gertatu zelako eta serie historikoan halako aurrekaririk ez dagoelako, ezta Atzeraldi Handian ere. Aitzitik, osasun alertak administrazio publikoen gastua aktibatu zuen, ia bikoiztu egin baitzuen haien erritmoa aurreko aldiekin alderatuta, eta $\%4,1$ eko tasa jaso zuen lehen hiruhilekoan.

Kapital eraketa gordinak azken urteetan erakutsi zuen tonu ona galdu zuen eta lehen hiruhilekoan $-\%3,6$ ko aldakuntza tasa eskuratu zuen. Magnitude hori osatzen duten bi osagaietatik, ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioak izan zuen beherakadarik handiena ($-\%5,0$), eta gainerako inbertsioek, berriz, $\%2,8$ egin zuten behera. Azken osagai horren barruan

eraikuntzan eginiko inbertsioa ere sartzen da, neurri batean funtsezko jardueratzat jo zena, eta, beraz, haren beherakada moteldu egin zen.

KONTSUMO ETA INBERTSIOAREN ADIERAZLEAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2019				2020
			I	II	III	IV	I
Kontsumoa							
Azalera eta kate handietako salmentak	1,9	1,1	1,4	1,8	1,6	-0,1	0,7
Txikizkako merkataritza indizea	0,7	0,9	1,9	0,0	1,5	0,2	-3,3
Kontsumo ondasunen ekoizpena	5,5	2,4	3,0	5,3	2,1	-0,4	1,8
Kontsumo ondasunen inportazioa	-6,4	0,6	-2,4	-2,1	3,2	3,5	1,2
Turismoen matrikulazioa	4,6	-2,0	-4,4	-1,0	-7,9	5,5	-34,0
Inbertsioa							
Ekipo ondasunen ekoizpena	4,3	1,8	2,0	-0,3	-1,4	7,1	-6,3
Ekipo ondasunen inportazioa	7,0	5,9	7,2	7,2	5,4	3,9	-9,5
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	18,0	-16,7	-2,8	-18,7	-20,5	-23,2	-25,4
Etxebizitza berriak eraikitzeako oniritziak	20,3	-7,1	30,0	-1,6	-23,2	-23,5	-26,4
Lizitazio ofiziala	-25,6	11,5	32,2	-3,9	-5,8	21,9	-55,3

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustat, Aduana, Sustapen Ministerio, Seopan eta Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren datuetan oinarrituta.

Inbertsioarekin lotura duten koiunturako adierazle guztiak balio negatiboetan daude gaur egun. Jarduera geldiarazteko neurriek eragin handia izan zuten ekipamendurako ondasunen inportazioan eta %9,5 murriztu zen urte arteko tasan. Martxoan, berriz, %16,2ra iritsi zen inportazio horien beherakada. Beste aldetik, etxebizitzarekin lotura duten estatistikek oso tasa negatiboak erregistratu zituzten hiruhileko horretan. Baimenen kasuan, jaitsiera hori aurreko hiruhilekoetan gertatu zirenei gehitu zaie, eta lizitazio ofizialak behera egin zuen hilabete horietan (-%55,3). Azkenik, zama ibilgailuen matrikulazioak oso tasa negatiboak eta %20,0tik pixka bat gorakoak erregistratu zituen hiruhilekoan, baina apirilean -%90,0raino iritsi ziren, nahiz eta maiatzean beherakada nabarmen leundu zuen (-%55,0), deseskalatzea aurrera egin ahala. Aurreko guztiak pentsarazten du atzeraldiaren punturik baxuena apirila izan zela, hilabete horretatik aurrera susperraldi motela gertatzen ari baita.

Kanpo saldoak BPGaren hazkundeari egindako ekarpena hutsala izan zen aurteko lehen hiruhilekoan, pandemia kontrolatzeko hartu diren neurriek antzerako eragina izan zutelako esportazioetan zein inportazioetan. Bi kasuetan, urte arteko jaitsiera %7,0tik gorakoa izan zen

termino errealetan. EAEko kanpo-saldoaren neutraltasun hori ez dator bat Eurostatek eurogunerako ezagutarazi dituen datuekin. Izan ere, eremu ekonomiko horretan, kanpo saldoak ia puntu eta erdi kendu zion BPGaren hazkundeari, bereziki esportazioen beherakadatik. Koronabirusari aurre egiteko neurriak hartzeak egutegi ezberdina izan zuen herrialde bakoitzean, eta, oro har, Europako zati handi bat Italia eta Espainia baino pixka bat beranduago Kaltetu zen. Beraz, neurriek kanpo merkataritzan izango duten eragina aste batzuetako atzerapenarekin nabaritu da.

Prezioek ez zuten paper garrantzitsurik jokatu kanpo merkataritzan lehen hiruhilekoan, eta esportazioen eta inportazioen urte arteko aldakuntzak, termino nominaletan, ez ziren izan lehen aipatutako errealekiko oso desberdinak. Hala, esportazio nominalak %7,6 jaitsi ziren, eta inportazio nominalak, berriz, %6,7.

Esportazioen beherakada nabaria da bai Estatuko gainerako erkidegoetako harremanetan bai atzerriarekikoetan. Azken kasu horretan, lehen hiruhilekoko ondasunen salmenta 5.568 milioi eurora iritsi zen; kopuru hori 2019ko epe berean erregistratutakoa baino %9,9 txikiagoa da, eta aurreko hiruhilekoko baino 1.000 milioi euro inguru txikiagoa. Zifra horiek agerian uzten dute konfinamenduaren lehen hamabostaldiak izan zuen eragin handia. Esportatutako erregai mineralak 355 milioi eurotan balioetsi ziren, 2019an baino %10,9 gutxiago, eta esportatutako gainerako produktuak 5.213 milioi eurokoak izan ziren guztira, hau da, aurreko urtean baino %9,8 gutxiago. Beraz, eragina antzekoa izan zen bi ondasun taldeetan.

EAEtik esportatzen diren produktuen hiru talde nagusiek beherakada esanguratsuak izan zituzten hiruhileko horretan. Izan ere, metal arruntek eta haien manufakturrek %14,6 murriztu zuten salmenten balioa urte arteko tasan, eta, horrenbestez, bost hiruhileko jarraian izan dituzte jaitsierak. Antzeko zenbakia erregistratu zuten makina eta aparatuek (-%14,3), aurreko aldietan ere ahultasun-zantzuak erakusten zituztenak. Azkenik, garraio materialak (-%13,4) 2019ko zatirik handienean, automobilgintzaren sektoreko arazoak bideratzen hasi zirenean, erakutsitako bilakaera ona eten zuen.

Gainerako arantzel sekzioetatik, guztiak ere gorago aipatu direnak baino pisu txikiagoarekin, nekazaritza ekoizpenaren esportazioa nabarmentzen da, %37,1 igo baitzen. Funtsezko ondasuntzat jo izanak jarduera horren bilakaera positiboa ahalbidetu du. Bestalde, produktu kimikoek (-%10,0), paperek (-%7,3) eta plastikoen eta kautxuak (-%5,5) atzerrira egindako salmentak murriztu zituzten, eta aurreko aldietan erregistratutakoei beste jaitsiera bat gehitu zieten. Hiru taldeetan jada zailtasunak nabariak ziren koronabirusa agertu baino lehen.

Martxoaren bigarren hamabostaldian jarduera geldiarazi izanak helmugako merkatu guztiei eragin zien, eta, beraz, aldakuntza tasak ez dira asko aldatzen batetik bestera. Zehatzago, herrialde garatuetara bidalitako esportazioak, ELGEren barruan daudenak, %9,4 murriztu ziren hiruhileko horretan eta 4.666 milioi eurora iritsi ziren. Bestalde, garapen bidean dauden herrialdeetara egindako bidalketak %12,0 jaitsi ziren eta 903 milioi eurokoak izan ziren guztira. Bi kasuetan azken urteetako zenbatekorik txikiak dira.

ESPORTAZIOEN HELMUGA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2018	2019	2019			2020	
			II	III	IV	I	I
GUZTIRA	6,8	-0,4	5,4	-5,6	2,3	-9,9	5.568.469
ELGE	7,9	-0,2	5,9	-3,8	0,0	-9,4	4.665.680
Eurogunea	7,1	-0,2	5,9	-5,4	-1,2	-7,0	3.041.379
Alemania	1,6	0,1	3,0	3,1	1,5	-1,8	946.466
Frantzia	5,2	0,8	7,4	-5,4	-2,7	-11,6	880.107
Italia	13,8	-5,9	-2,7	-13,8	-1,8	-13,3	268.135
Erresuma Batua	14,5	34,2	54,9	38,0	31,0	-24,0	383.416
AEB	16,4	-15,5	-18,3	-19,4	-10,7	-18,7	375.100
ELGETik kanpokoak	2,2	-0,9	2,9	-13,2	14,4	-12,0	902.789

Iturria: Eustat.

EAEko produktuen esportazioen beherakada zertxobait txikiagoa izan zen eurogunean egitura esportatzailean pisua duten beste herrialde garatu batzuetan baino. Zehatzago, eurogunean eginiko salmentak %7,0 murriztu ziren, jaitsieraren batez bestekoa baino tasa txikiagoa dena, baina hirugarren jaitsiera jarraian kateatu zuen. Ibilgailu automobilen bilakaerak (-%6,9), eremu horretara egindako esportazioetan pisu handiena duen kapituluak, salmenta globalen zentzua markatzen du, nahiz eta gainerako kapitulu gehienek ere okerrera egin zuten aurreko urtearekin alderatuta. Hala, erregai mineralek duela urtebete baino %2,3 gutxiago egin zuten, eta makineria elektronikoak %27,6 gutxiago. 50 milioi euro baino gehiago saldu zituzten atalen artean, igoera bakarra olioek eta koipeek lortu zuten, kapitulu txiki bat, salbuespenez bere ohiko guztizkoa hamabi aldiz biderkatu zuena.

Alemaniak Europako beste herrialde garrantzitsuek baino portaera hobea izan zuen. Han ere salmentak murriztu ziren arren, haien jaitsiera (-%1,8) euroaren eremuko batez bestekoa baino

nabarmen txikiagoa izan zen. Are gehiago, herrialde horretarako esportazioan pisu handiena duen kapituluak, hots, ibilgailu automobilek, merkatu horrekiko truke guztien erdia baino gehiago ordezkatzeko baitute, balioaren %4,9ko igoera ezagutu zuten, aurreko datu onei jarraipena emanez. Hala eta guztiz ere, salmenten hazkunde hori gainerako kapitulu garrantzitsu guztietan izandako beherakaden ondorioz indargabetu zen. Adibidez, kautxuak eta bere manufakturek %12,4 gutxitu zuten salmenten balioa, burdinaren eta altzairuaren galdaketak %18,6, galdaketako manufakturek %2,3 eta makineria elektronikoak %20,6.

Frantzia Alemaniaren portaeratik urrundu da eta EAEko esportazioak %11,6 murriztu ziren merkatu horretan. Herrialde horretan jarraian izandako hirugarren jaitsiera da oraingoa. Ibilgailu automobilak ere pisu handieneko kapituluak dira, baina guztizkoaren %14,8 baino ez dira. Halaber, urte arteko tasan %16,9 jaitsi zen ibilgailuen salmenta. Bilakaera hobea izan zuen bigarren kapituluak, erregai mineralek, aurreko urteko kopurua ia berdindu baitzuen (-%0,7), azken bi hiruhilekotan izandako beherakada handien ondoren. Bai galdaketarekin lotutako kapituluak bai makineriakoek batez bestekotik gorako erorketak izan zituzten.

Italia izan zen koronabirusa sufritu zuen Europako lehen herrialdea eta larrialdiko neurriak hartu zituen lehena. EAEko produktuen salmentak %13,3 jaitsi ziren lehen hiruhilekoan eta dagoeneko bost hiruhileko eman ditu negatiboan. Pisuzko kapitulu guztiek beherakada handiak izan zituzten. Hala, ibilgailu automobilen esportazioa %13,9 murriztu zen, burdinaren eta altzairuaren galdaketa, berriz, %28,8 eta kautxuarena %24,4.

2020. urtea hastearrekin batera, Erresuma Batuak amaiera eman zion aurreko hiru urteetan gauzatu zuen EAEko produktuen erosketa-bolumen handiari eta herrialde horretara bidalitako esportazioak %24,0 jaitsi ziren. Igoera horien arrazoi nagusia CAF enpresarekin egindako kontratuetatik eratorritako trenbideetarako ibilgailuen salmentan zegoen. Horrek horrela izaten jarraitu du eta kapitulu horrek 67 milioi euroko produktuak esportatu zizkion Erresuma Batuko ekonomiari lehen hiruhilekoan, %159ko hazkundearekin. Halere, ez zen nahikoa izan gainerako enbaitza txarrak konpentsatzeko. Azken horien artean, ibilgailu automobilak (-%40,3), makineria elektronikoa (-%24,2) eta burdinaren eta altzairuaren galdaketa (-%52,5) nabarmentzen dira.

AEBekiko merkataritza-harremana oso baldintzatuta egoten da erregai mineralen salmentarekin, merkatu horretara esportatzen diren produktu guztien laurdena baino pixka bat gehiago biltzen baitu kapitulu horrek. Guztira, EAEko esportazioak aurreko urtekoak baino %18,7 txikiagoak izan ziren eta dagoeneko bost hiruhilekotan jarraian hoztu dira salmentak: Bilakaera negatibo horretan, eragin handia izan du herrialde horrek Europako zenbait produktuekiko garatu duen muga zergen politikak, horien artean ardoa kaltetuz. Erregai mineralek ere ez zuten enbaitza onik lortu aldi horretan eta esportatutako balioak %18,6 egin zuen behera. Pisu esanguratsua duten

beste kapitulu batzuek ere behera egin zuten beren salmentetan. Horien artean, honako hauek aipatu behar dira: galdaketako manufakturak (-%19,2), makineria elektronikoa (-%3,1) eta makina eta aparatu elektrikoak (-%44,4). Portaera negatibo horren salbuespena ibilgailu automobilak izan ziren, salmentak %68,3 igo baitziren.

Garapen bidean dauden herrialdeetara egindako esportazioak aurreko urtean egin zirenak baino %12,0 txikiagoak izan ziren. Herrialde multzo horretara bideratzen diren kapitulu nagusiek jokabide kontrajarriak izan zituzten. Alde batetik, oso beherakada esanguratsuak izan zituzten makina eta aparatu elektrikoaren salmentak (-%20,4) eta ibilgailu automobilenak (-%20,0) aldi horretan. Aitzitik, galdaketako manufaktura salmentak %10,5 hobetu ziren, aurreko hiruhilekoko datu onaren ondoren. Azkenik, makina elektronikoen esportazioak, eremu horretara esportatutako guztiaren laurdena hartzen baitu, ia aldaketarik gabe mantendu zuen 2019ko esportazio maila (%0,3).

Herrialde multzo horren barruan, Txina salbuespena izan zen eta merkatu horretara egindako salmentak %4,8 igo ziren lehen hiruhilekoan, hilabete horietan herrialdea jada pandemiaren ondorioak pairatzen ari zen arren. Herrialde horretara egindako esportazio guztien ia erdia makineria mota desberdinei dagokie eta guztira %20ko beherakada izan zuten. Hala ere, noizean behin gertatzen da produktu baten salmentak pisua irabazten duela eta tradizionalen bilakaera konpentsatzen duela. Produktu horietako bat kobrea izan zen 2019an, eta papera izaten ari da orain. Hain zuzen ere, Txinari egindako paperaren eta kartoiaren salmenta boskoiztu egin da urtearen hasieran eta kapitulu hori bazterrekoa izatetik herrialdera egindako esportazioen %12,6 izatera igaro da. Galdaketa-manufaktura ere, pisu handieneko beste kapitulu bat baita, emaitza bikaina izan zuten (%83,4), aurreko aldietako hazkundeei jarraipena emanez.

Inportazioen bilakaera esportazioen antzekoa izan zen, eta arrazoi beragatik: osasun alertatik eratorritako jardueraren paralisia. Kasu horretan, erosketen jaitsiera %11,5ekoa izan zen eta kopuru osoa 4.564 milioi eurora igo zen. Bai erregai mineralek bai gainerako produktuek beherakada esanguratsuak izan zituzten, %12,7koak eta %11,1ekoak, hurrenez hurren. Esportazioetan gertatu zen bezala, urte arteko tasan erosketak handitu zituen produktu multzo bakarra nekazaritza produktuena izan zen (%1,7). Gainerako kapituluetatik, metal arrunten eta horien manufaktura (-%20,1) eta produktu kimikoen (-%21,4) beherakada handia eta plastikoen eta kautxuaren (%0,0) eta garraio materialaren (-%1,2) emaitza neurritsuagoak kontrajartzen dira.

Inportazioak jatorri geografikoaren arabera aztertuta, ondorioztatzen da erosketen murrizketak eremu ekonomiko guztiei eragin zuela. Izan ere, herrialde garatuetatik %14,4 gutxiago inportatu zen eta azaleratzen ari direnetatik %5,5 gutxiago. Beste behin ere, aipatu behar da

desberdintasun horren zati bat erregai mineralen jatorriarekin lotuta dagoela, eta hiruhileko honetan Europako herrialde batzuei, hala nola Norvegiari eta Herbehereei, mesede egin dietela, Afrikako ekonomia batzuen kaltetan, Nigeria eta Irak bereziki.

INPORTAZIOEN JATORRIA

Urte arteko aldakuntza tasak eta mila euro

	2018	2019	2019			2020	
			II	III	IV	I	I
GUZTIRA	8,8	-0,8	4,7	-7,2	-5,5	-11,5	4.564.332
ELGE	4,4	2,1	10,6	-7,1	3,4	-14,4	2.993.811
Eurogunea	4,7	1,3	4,5	-7,5	1,2	-14,8	1.992.897
Alemania	4,9	3,2	7,5	-7,7	6,0	-16,7	665.200
Frantzia	5,6	-7,5	-7,9	-11,8	-9,9	-13,9	426.295
Italia	6,9	-3,7	-3,6	-11,7	2,3	-17,5	200.883
Erresuma Batua	-43,0	-16,1	-18,2	-21,5	18,7	-34,7	123.720
AEB	13,5	86,6	152,5	81,6	64,0	-22,6	140.348
ELGEtik kanpokoak	18,4	-6,5	-6,2	-7,5	-23,0	-5,5	1.570.521

Iturria: Eustat.

Energiaren merkatuko aldaketa horiek azaltzen dute, halaber, Erresuma Batutik eta AEBetatik datozen produktuen inportazioan gertatzen den zeinu-aldaketa. Izan ere, produktu horiek 2019ko laugarren hiruhilekoan gorakada handiak izan zituzten, baina 2020aren hasieran herrialde garatuetako batez bestekoa baino jaitsiera handiagoak izan zituzten. Gainerakoan, euroaren eremuko hiru herrialde nagusien artean inportazioen jaitsieraren erritmoan dauden aldeak nahiko txikiak dira.

Lehen hiruhilekoan esportatutako eta inportatutako diru kopuruen arteko aldeak 1.004 milioi euroko merkataritza saldoa utzi du, EAEren aldekoa. Kopuru hori 2019ko laugarren hiruhilekoko baino nabarmen txikiagoa da (1.547 milioi euro), baina 2019ko epe berean erregistratutakotik gertu dago (1.018 milioi euro). Lehen hiruhilekoaren banakapena honako hau da: 1.794 milioi euroko saldo ez-energetiko positiboa eta 790 milioi euroko saldo energetiko negatiboa. Azken zifra hori aurreko aldietan erregistratutakoen antzekoa da.

Prezioak, soldatak eta kostuak

Prezioak aztertzen dituzten adierazleek beheranzko mugimenduak izan zituzten 2019ko lehen hilabeteetan. Izan ere, eta BPGaren deflatorea aztertzen hasita, adierazle hori, 2019ko azken hiruhilekoan %1,1eraino igo ondoren, sei hamarren murriztu zen aurtengo ekitaldiko lehen hilabeteetan. Jaitsiera hori kontsumo publikoaren deflatorearen beheranzko bilakaeran oinarritu zen (aurreko hiruhilekoan %1,9 izatetik %1,4 izatera igaro zen), bai eta kapital eraketa gordinaren deflatorean ere (%1,1etik %0,8ra).

KPIari dagokionez, urtearen hasieran igoera txiki bat erakutsi ondoren, hurrengo hilabeteetan apaltzeko fase bati ekin zion, maiatzean -%0,7ra iritsi arte, datuak ezagutzen diren azken hilekoa hori baita. Jaitsiera horren jatorria petrolioak berriki ezagutu duen prezioen beherakada nabarmena izan zen, koronabirusaren izurriteak oso eragin negatiboa izan baitzuen lehengai horretan, bere eskaria murriztu zuelako.

KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEAREN BANAKETA

Urte arteko aldakuntza tasak eta ekarpenak

	2018	2019	2019			Ekarpena
			IV	I	Maiatza	
Inflazio osoa (%100)	1,6	1,0	0,8	0,8	-0,7	-0,7
Azpiko inflazioa (%81,4)	0,9	1,0	1,2	1,3	1,0	0,8
- Elikagai landuak (%13,6)	0,9	0,6	1,1	1,8	2,5	0,3
- Industria ondasunak (%24,8)	-0,1	0,3	0,5	0,6	0,3	0,1
- Zerbitzuak (%43,0)	1,5	1,6	1,6	1,6	1,0	0,4
Hondar inflazioa (%18,6)	4,6	0,8	-0,9	-1,7	-8,0	-1,5
- Landu gabeko elikagaiak (%7,6)	2,9	1,3	2,6	3,2	5,5	0,4
- Energia (%11,0)	5,9	0,4	-3,3	-5,0	-16,9	-1,9

Iturria: INE.

Zehazkiago adierazita, otsailaren erdialdean petrolioaren prezioak aldi baterako igoera txiki bat izan zuen, birusa mundu osora hedatu zenean gutxitzen hasi zena. Zehatz-mehatz, horiek nabarmen jaitsi ziren mundu mailako eskariak beheranzko joera areagotu ahala, eta apirilaren amaieran upel bakoitzeko 5 dolar baino gehixeago izatera iritsi ziren. Balio horiek ez ziren serie osoan, 1985ean hasi baitzen, inoiz jaso. Bi data horien artean, martxoaren hasieran Errusiak uko egin zion petrolio gordinaren ekoizpena murrizteari, eta Saudi Arabiak produkzioaren igoerarekin

erantzun zion murrizketa horri, eta, ondorioz, petrolioaren prezioen egun bateko jaitsierarik handienetakoa gertatu zen. Azkenik, apirileko hirugarren astetik aurrera, petrolioak goranzko bideari ekin zion berriro, LPEEk eta kanpoko bazkideek eskaintza murrizteko ituna berretsi eta erregaien eskaria handitu ondoren, herrialde gehienetan jarduera pixkanaka berriro irekitzearen ondorioz. Maiatzean herrialde horien murrizketa egunean 9 milioi upel baino zertxobait handiagoa izan zela kalkulatu dute.

Petrolioaren egungo prezioak kontuan hartuta, hurrengo aldietarako inflazio baxuko aurreikuspenei eutsi zaie, hasitako beheranzko joeraren ildotik. Hala eta guztiz ere, prezioen gaineko beheranzko presio horiek, eskariaren ahulezia handiagoarekin lotutakoak, neurri batean konpentsatu ahal izango lirateke eskaintzan erregistratu daitezkeen nahasmenduekin lotutako goranzko ondorioekin.

Azpiko inflazioa ere, oro har, maila apaletan mantendu zen, urtarrilean %1,4ra igo eta maiatzean %1,0ra jaitsi ondoren. Adierazle hori osatzen duten talde guztiek oso aldaketa gutxi izan dituzte azken hilabeteetan, eta bai zerbitzuak bai produktu energetikorik gabeko ondasun industrialak izan dira beherakada horretan gehien lagundu dutenak. Zehazkiago adierazita, lehenengoek beheranzko joerari jarraipena eman zioten eta oraintsuko balioen azpitik geratu ziren erregistroak. Industriako ondasunek, berriz, martxoan zertxobait gora egin ondoren, behera egin zuten berriro. Azkenik, landutako elikagaiak nolabaiteko erresistentzia aurkeztu zioten beheranzko joerari eta beren erregistroak zerbitzu taldearen gainetik ere egon ziren, azken hilabeteetan errepikatu den bezala.

Aitzitik, hondar-inflazioa osatzen duten bi osagai nagusiek oso portaera desberdinak erakutsi zituzten. Izan ere, landu gabeko elikagaien prezioa nabarmen igo zen, eskaintzan agertu ziren arazoengatik eta koronabirusaren krisiari lotutako eskariaren gorakadagatik. Ohiko produktu batzuk, hala nola arrain freskoa eta fruta, oso prezio altuetan saldu ziren. Beste aldetik, osagai energetikoaren ekarpena garbiki beheranzkoa izan zen, lehenago ere aipatu den petrolioaren prezioaren beherakada horren ondorioz, eta maiatzean serie historiko osoko baliorik txikiena erregistratu zen (-%16,9).

Kontsumo prezioen kalkulua pandemiatik eratorritako gorabeheretara egokitu behar izan dute, eta horrek zaildu egin du datu bilketa ohiko moduan egitea. Hori dela eta, adierazi beharreko bi metodologia aldaketa egin behar izan dira. Alde batetik, inkestazaileek telefonoz egin zuten beren lana, eta, beste aldetik, ondasun eta zerbitzu kopuru handi baten prezioak zenbatetsi behar izan ziren.

KPI indizea osatzen duten produktu multzoen artean, inflazioaren jaitsieran eragin handiena izan zutenak petrolioaren prezioaren bilakaerarekin lotura handiena dutenak izan ziren. Izan ere, bai garraio bai etxebizitza taldeek aurkeztu zituzten urte arteko tasak beren batez besteko historikoen oso azpitik zeuden. Lehenengoak erregaien prezioek izan zuten beherakada nabarmenen eragin negatiboa izan zuen bitartean, bigarren taldeak argindarraren prezioetan eta berokuntzarako gasolioan gertatu ziren beherakadak nabaritu zituen. Aitzitik, elikagaien eta alkoholik gabeko edarien taldeko prezioak nabarmen igozten ari dira azken hilabeteetan, produktu freskoen bilakaerak gidatuta. Hala, talde hori izan zen, alde handiz, gehien garestitu zena, premia biziko ondasun mota horietan erregistratutako eskariaren gorakadaren ondorioz sortu ziren tentsio inflazionisten ondorioz.

EAE-KO KONTSUMOKO PREZIOEN INDIZEA

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2019			2020	
			II	III	IV	I	Maiatza
Indize orokorra	1,6	1,0	1,1	0,6	0,8	0,8	-0,7
Janariak eta alkohol gabeko edariak	1,5	0,9	0,3	0,9	1,9	2,6	4,0
Edari alkoholdunak eta tabakoa	2,2	0,3	0,1	-0,3	-0,2	0,1	0,5
Jantziak eta oinetakoak	1,1	1,0	1,1	1,0	0,9	1,1	1,0
Etxebizitza, ura, elektrizitatea, gasa	2,6	-1,4	0,1	-3,4	-4,4	-4,0	-5,6
Etxeko hornidura	0,3	1,0	0,8	1,3	1,3	1,1	0,1
Medikuntza	0,2	0,4	0,0	0,6	1,0	0,7	0,6
Garraioa	3,4	2,7	3,3	1,8	2,9	1,0	-7,6
Komunikazioak	2,4	0,9	0,2	0,4	0,8	0,1	0,5
Aisia eta kultura	-0,4	-0,2	-0,1	0,5	0,4	0,3	-0,5
Irakaskuntza	1,0	1,0	0,8	0,9	1,4	1,4	1,4
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,9	1,9	2,3	2,0	1,7	1,9	1,1
Besteak	0,7	1,6	1,9	1,4	1,4	1,3	1,0

Iturria: INE.

KPI indizearen kasuan bezala, IPRI indizeak ere beheranzko joera erakutsi zuen, nahiz eta beraren beherakada askoz ere nabarmenagoa izan zen, aldakuntza-tasak $-\%5$ era hurbildu baitziren. Inflazio globalaren kasuan bezala, energia osagaiaren beherakada nabarmenak eragin zuen jaitsiera hori. Izan ere, apirilean, datuak eskuragarri dauden azken aldian, serie historiko osoko erregistrarik txikiena izan zuen, $-\%22,3$ koa. Balio negatiboak, baina ez hain garrantzitsuak, erregistratu zituen beste talde handia bitarteko ondasunena izan zen ($-\%1,2$). Gainerakoak, hau

da, kontsumo ondasunen ekoizpen prezioak eta ekipo ondasunenak, maila apaletan, baina positibotan, mantendu ziren.

HITZARMENETAN ADOSTUTAKO SOLDATA IGOERAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2016	2017	2018	2019	2020 (*)
Indarrean dauden hitzarmenak:	1,0	1,5	1,9	2,0	1,8
- Urtean zehar sinatutakoak	1,1	1,7	2,2	2,3	2,2
Negoiazio esparruaren arabera:					
- Sektoreko hitzarmenak	1,0	1,5	2,0	2,1	1,9
- Enpresako hitzarmenak	1,1	1,5	1,6	1,8	1,7

(*) 2020ko apirila arte adostutako lan hitzarmenak.

Iturria: Lan Harremanen Kontseilua.

Hitzarmen kolektiboen atalean, nabarmentzekoa da aurtengo lehen lauhileko honetan erregistratu diren hitzarmenen kopuru handia, aurreko urteetako aldi berarekin alderatuta. Hain zuzen ere, 47.565 hitzarmen ziren eta langileen %45 zeuden haien eraginpean, aurreko urtean erregistratutako hitzarmenak 28.000 inguru zirenean. Bestalde, soldaten igoera, indarrean dauden hitzarmenena zein urtean zehar sinatutakoena, zertxobait moteldu zen, nahiz eta langileek erosteko ahalmen apur bat irabazi zuten, kontsumo prezioen bilakaera negatiboa delako.

LAN KOSTUAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	2018	2019	2019				2020
			I	II	III	IV	I
Lan kostu guztiak langileko	2,5	1,8	1,7	2,8	1,4	1,5	2,1
- Soldata kostua guztira	2,4	1,4	1,5	3,2	0,8	0,2	1,8
- Bestelako kostuak	2,9	3,1	2,3	1,8	3,0	5,4	2,9
Lan kostu guztiak orduko	2,3	3,8	0,0	7,5	5,5	2,0	6,5
- Soldata kostua guztira	2,1	3,4	-0,2	8,0	5,0	0,8	6,2
- Bestelako kostuak	2,7	5,1	0,5	6,3	7,2	6,0	7,3
Adostutako lan orduak	0,3	0,1	-0,1	-0,3	0,6	0,0	-0,5
Benetan lan egindako orduak	0,3	-1,8	1,7	-4,5	-3,9	-0,6	-4,1

Iturria: INE.

Azkenean, alarma egoeraren adierazpenak eragina izan zuen lan kostuen bilakaeran ere. Hala izanda, bestelako kostuen osagaia %5,4tik %2,9ra moteldu zuen bere igoera erritmoa. Izan ere, enplegatzaileen konturako gizarte kotizazio gehienak salbuetsita egon ziren alarma aldi horretan. Beste aldetik, benetako ordu bakoitzeko lan kostua langile bakoitzeko lan kostuaren gainetik igo zen (%6,5 eta %2,1, hurrenez hurren), zeren eta lan egindako benetako orduen kopurua %4,1 murriztu baitzen epealdi horretan, koronabirusaren ondorioz. Hala eta guztiz ere, lan kostu hori sei hamarren igo zen aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, gutxieneko soldataren igoerak ekarri zuen bultzadaren ondorioz.

Arlo publikoa

Koronabirusak oso eragin negatiboa izan zuen foru aldundien zerga bilketan, pandemia horrek jarduera ekonomikoan eragin zuen beherakadaren ondorioz. Horri gehitu behar zaio enpresek eta herritarrek egoera hori gainditu ahal izateko hartu ziren neurri aringarriek eragindako alboko eragina. Zehatz-mehatz adierazita, urtarrila eta maiatza bitarteko diru bilketak %21,8ko beherakada izan zuen, eta, diru kopuruei dagokienez, 1.171 milioi euro gutxiago bildu ziren.

Arestian aipatutako neurrien artean, aipatzekoak dira, batetik, ordaindu beharreko aitortpenen ordainketa atzeratzea, eta, bestetik, zergak itzultzeko prozesuak ahalik eta gehien aurreratzea, horrek eragin baitzuen diru sarreraren jaitsiera hain nabarmena izatea. Jaitsiera hori martxokoa baino hiru aldiz handiagoa izan zen (-%7,2); izan ere, hilabete horretan, ekoizpen ondorioetarako 15 egun baliogabeak izanik, urtarrileko eta otsaileko portaera ona deuseztatu zen.

Zuzeneko zergek jaitsiera apalagoak izan zituzten. Hala, PFEZaren jaitsieraren eragina %10,0koa izan zen, nagusiki autolikidazioen borondatezko aitortpena ekainera luzatzearen ondorioz, autonomoen kolektiboari martxoko, apirileko eta maiatzeko ordainketak atzeratzeko aukera eman baitzion. Bestalde, sozietateen gaineko zergak, pertsona fisikoen gaineko zergak ez bezala, jaitsiera askoz ere handiagoak izan zituen (-%17,0), zatikako ordainketen kobrantzaren aldi baterako etete hori orokorra izan baitzen, mikroenpresei eta enpresa txiki eta ertainei eraginez.

Zeharkako zergapetzeari dagokionez, haren figurarik adierazgarrienak, hots, BEZak, zigorrik handiena izan zuen konfinamenduak eragindako ondorioengatik, kontsumoa moteldu zelako eta prezioak jaitsi zirelako. Horien ondorioz, diru bilketa -%35,6 murriztu zen. Halaber, zergadunei egindako itzulketak arindu egin ziren, eta egiaztapen guztiak egin aurretik itzultzea erabaki zen, diru sarrerarik ez zegoenez, enpresek eta autonomoek diruzaintzan izan zitzaketen tentsioak arintzeko.

TRIBUTU ITUNDUEN BILAKAERA (urtarrila-maiatza)

Mila euro

TRIBUTUAK	Diru bilketa		
	2019	2020	% Ald. 20/19
PFEZ	1.957.167	1.760.972	-10,0
- Lanaren eta lanbide jard. etekinen atxikipenak	2.287.828	2.098.046	-8,3
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	69.275	66.313	-4,3
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	38.486	25.294	-34,3
- Ondare irabazien atxikipenak	12.715	28.617	125,1
- Loteria eta apustu jakin batzuen g/zerga bereziak	45.306	3.188	-93,0
- Prof. eta enpresariaren ordainketa zatikatuak	86.786	54.056	-37,7
- Kuota diferentzial garbia	-583.229	-514.541	11,8
Sozietateen gaineko zerga	224.143	186.038	-17,0
- Kapital higigarriaren etekinen atxikipenak	69.275	66.313	-4,3
- Kapital higiezinaren etekinen atxikipenak	38.486	25.294	-34,3
- Ondare irabazien atxikipenak	12.715	28.617	125,1
- Kuota diferentzial garbia	103.668	65.814	-36,5
Ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga	24.321	13.639	-43,9
Oinordetza eta dohaintzen gaineko zerga	43.464	34.671	-20,2
Ondarearen gaineko zerga	8.626	4.092	-52,6
Kreditu entitateen gordailuen gaineko zergak.			
Energia elektrikoaren ekoizpenaren gaineko zerga	588	14.557	
ZUZENAKO ZERGA GUZTIRA	2.258.309	2.013.969	-10,8
BEZaren bertoko kudeaketa	1.878.962	1.210.709	-35,6
Ondare eskualdatzeen gaineko zerga	69.097	52.337	-24,3
Egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga	20.765	15.048	-27,5
Garraio bide jakin batzuen gaineko zerga bereziak	12.038	4.743	-60,6
Fabrikazioaren zerga berezia. Bertoko kudeaketa	738.156	660.984	-10,5
Aseguru sarien gaineko zerga	31.611	30.250	-4,3
Joko jardueren gaineko zergak	3.024	3.012	-0,4
Berotegi efektuko gasen gaineko zergak	1.103	928	-15,8
Iraungitako zergak	-1.465	-19	98,7
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	2.753.292	1.977.993	-28,2
TASAK ETA BESTE. SARRERAK GUZTIRA	41.344	22.491	-45,6
BERTON KUDEATUTAKO TRIBUTU ITUNDUAK	5.052.945	4.014.453	-20,6
BEZaren doikuntza	483.911	432.880	-10,5
Zerga berezien doikuntza	-168.423	-249.913	-48,4
TRIBUTU ITUNDUAK GUZTIRA	5.368.433	4.197.420	-21,8

Iturria: Foru aldundiak.

Azkenik, gainerako zergek bezala, zerga bereziek ere balio negatiboak jaso zituzten (-%10,5). Protagonista nagusia eta bakarra, hazkunde positiboak izateagatik, tabako laboreen gaineko zerga izan zen berriz ere (%11,0), eta hori errepikatzen joan da azken hilabeteetan. Aitzitik, hidrokarburoak (-%14,2) eta elektrizitatea (-%17,1) bezalako zergek ez zituzten alde batera utzi urteko lehen hilabeteetako erregistro negatiboak, kontsumo txikiagoak izan zirelako lehen kasuan eta prezio baxuagoak bigarrean.

Arlo finantzarioa

Krisiak finantza sustrairik ez duen arren, jarduera ekonomikoaren jaitsierak eta ziurgabetasun sozialak finantza merkatuak astindu zituzten. Otsailean eta martxoan bizi zen konbultsio gogorren ondoren, apirilean eta maiatzean egoera egonkortu egin zen. Hegakortasunak behera egin zuen, eta kotizazioak egonkortu egin ziren, baita galdutakoaren zati bat berreskuratu ere. Hala, burtsek irabazi orokortuak eskuratu zituzten, urteko balantzea negatiboan jarraitu arren, eta arrisku sarien gaineko presioak lasaitu egin ziren. Hobekuntza hori gertatu zen inbertsiogileek banku zentralak hartutako ezohiko estimulu neurrien berri izan ahala, eta, hala, gobernu nazionalak zerga, finantza eta lan arloetan hartutako neurriekin batera gertatu zen.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2018	2019	2019			2020		
			Abend.	Urt.	Ots.	Mar	Apir.	Maiat.
Interes tasa ofizialak (%)								
Europako Banku Zentrala	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
Erreserba Federala	2,50	1,75-1,50	1,75-1,5	1,75-1,5	1,75-1,5	0,25-0,0	0,25-0,0	0,25-0,0
Japoniako Bankua	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10	-0,10
Ingalaterrako Bankua	0,75	0,75	0,75	0,75	0,75	0,10	0,10	0,10
Txinako Banku Popularra	4,35	4,15	4,15	4,15	4,05	4,05	3,85	3,85
Brasilgo Banku Zentrala	6,50	4,50	4,50	4,50	4,25	3,75	3,75	3,00
10 urteko zor publikoaren errentagarritasuna								
Alemania	0,25	-0,19	-0,19	-0,44	-0,61	-0,46	-0,59	-0,45
Espainia	1,42	0,47	0,47	0,23	0,28	0,68	0,73	0,57
Grezia	4,38	1,48	1,48	1,18	1,36	1,65	2,17	1,51
Erresuma Batua	1,27	0,83	0,83	0,53	0,44	0,36	0,23	0,18
Italia	2,77	1,43	1,43	0,92	1,13	1,53	1,78	1,49
AEB	2,69	1,91	1,91	1,52	1,13	0,70	0,63	0,64

Iturria: Europako Banku Zentrala (EBZ) eta Espainiako Bankua.

Zehazkiago adierazita, Europako Banku Zentralak (EBZ) bere horretan utzi zituen interes tasa ofizialak eta larrialdietarako programa bat abiaraztea onartu zuen, larrialdi pandemikoa erosteko programa (PEPP) izenekoa, koronabirusaren pandemiari aurre egiteko. Programa horren bidez, 750.000 milioi euroko aktibo publiko eta pribatuak eskuratuko ditu eta 2020. urtearen amaierara arte indarrean egongo da. Halaber, Gobernu Kontseiluak adierazi zuen euroguneko ekonomiari eusteko behar den guztia egingo duela, eta ohartarazi zuen prest dagoela bere aktiboen erosketen bolumena handitzeko eta bere osaketa "behar den bezainbeste eta behar den denbora guztian" doitzeko.

Erreserba Federalak, interes tasak zerotik gertu dauden mailetara jaitsi eta martxoan estimulu programa ugari martxan jarri ondoren, apirilean eta maiatzean zor merkatuetan jarduten jarraitu zuen, aktibo kopuru handiak erosiz. Hain zuzen ere, maiatzean, AEBetako Altxorraren Departamentuak iragarri zuen zor obligazioak jaulkiko zituela, bigarren hiruhilekoan ia hiru bilioi dolarreko errekorragatik, nagusiki ekonomia suspertzeko plana finantzatzeko, eta mezua ezagutarazi zuen ahal duen guztia egingo duela ekonomiari eusteko, nahiz eta ez dirudien tasa negatiboen aukera aurreikusten denik.

Japoniako Bankuak, bere aldetik, zor publikoko bonuak mugarik gabe erostea erabaki zuen, orain arte urtean 80 bilioi yen erosteko muga zegoen arren, eta horri esker Shinzo Abe presidentearen gobernuak bultzatu duen herrialdeko historiako laguntza ekonomikoen pakete handiena finantzatu ahal izango du. Ingalaterrako Bankuak (BoE) eta Erresuma Batuko Gobernuak batera iragarri zuten "aldi baterako" handitzea, eta inolako mugarik gabe gobernu britainiarrak historikoki finantza-agintaritzan izan duen alde aurreko zorpekoa. Ways and Means Facility (W&M) deiturikoa mekanismo iraunkor bat da, BoEk Gobernuari zuzenean mailegua ematen diona, honek bonuak jaulki eta zorraren bigarren mailako merkatura jo behar izan gabe.

Azaleratzen ari diren merkatuetan, Brasileko Banku Zentralak ehuneko 0,75 puntu murriztu zuen maiatzean bere interes-tasa, urteko %3,0ra arte, hau da, beste minimo historiko bat, herrialdearen ekonomia ahuldua suspertzeko eta koronabirusaren pandemiaren inpaktuak leuntzeko ahaleginean. Txinako Banku Zentralak, azkenik, bere diru politika aldatu gabe mantendu zuen. Apirileko eta maiatzeko adierazle ekonomikoek jasotzen dute bere ekonomia ondo bideratuta dagoela dirudiela, eta, horregatik, bertako banku zentralak, oraingoz, ez du beharrezko ikusi salbuespenezko neurri gehiago hartzea.

Zor merkatuetan, Fedek eta EBZk neurriak hedatu izanak testuinguru egonkor baten alde egin zuen apirilean, eta interes tasa subiranoak murriztu AEBetan eta Alemanian. Hilabetea, ordea, ez zen hain barea izan euroguneko periferiako herrialdeentzat, herrialde haietako arrisku sariak sendo hazi baitziren. Apirilaren erdialdera, Espainiaren arrisku saria 156 puntutan kokatu zen,

Portugalena 171 puntutan, Italiarena 253 puntutan eta greziarra 300 puntutan. Igurikimenak maiatzean hobetu izanak eta Europako Banku Zentralak zorra erosteak mesede egin zien Europako hegoaldeko errentagarritasunei, ohiko babeslekuen aldean. Adibidez, Alemaniakoa 14 puntu igo zen maiatzean (apirilean $-0,59\%$ ko errentagarritasuna izatetik maiatzean $-0,45\%$ koa izatera igaro zen), eta Frantziakoak egonkor jarraitu zuen maiatzeko azken asteetan. Hain zuzen ere, Espainiako, Italiako, Portugaleko eta Greziako errentagarritasunek behera egin zuten. Espainian, hamar urterako bonuaren errentagarritasuna $0,57\%$ an finkatu zen maiatzaren amaieran, AEBetako bonuarentzat ezarritako $0,64\%$ aren azpitik, eta Espainiako arrisku saria 102 puntutan kokatu zen, apirilean erregistratutako maila baino 30 puntu beherago.

Dibisen merkatuari dagokionez, apirilean zehar, euroak balioa galdu zuen gurutzatze nagusietan eta dolarraren aldean 1,08 dolarren azpitik jaistera iritsi zen, azken hiru urteetako baliorik txikiena baita. Maiatzean, berriz, monetaren eta zergen ikuspegitik hartutako neurriek sortu zuten konfiantzagatik balioa irabazi zuen. Hala eta guztiz ere, aurten euroak $1,9\%$ galdu du dolarraren aldean eta $3,6\%$, berriz, yenaren aldean. Dena dela, billete berdeak liberaren aldean balioa irabazi izanak –urtarrietik maiatzera bitartean $4,7\%$ egin du gora-, benetako truke tasa nominalari dagokionez, euroak $1,0\%$ irabazteak ahalbidetu du.

ADIERAZLE MONETARIO ETA FINANTZARIOAK

	2018	2019	2019		2020			
			Abend.	Urt.	Ots.	Mar	Apir.	Maiat.
Truke tasak								
Dolarra/euro	1,181	1,120	1,111	1,110	1,090	1,106	1,086	1,090
Yena/euro	130,4	122,1	121,2	121,4	120,0	118,9	117,0	116,0
Libera esterlina/euro	0,885	0,877	0,847	0,849	0,841	0,895	0,875	0,887
Yena/dolarra	110,4	109,1	109,1	109,3	110,1	107,5	107,7	107,2
€ efektibo nominala (%)	99,0	97,3	96,7	96,2	95,6	98,1	97,5	97,7
Burtsa indizeak (*)								
IBEX35	-15,0	11,8	11,8	-1,9	-8,6	-28,9	-27,5	-25,7
Eurostoxx-50	-14,3	24,8	24,8	-2,8	-11,1	-25,6	-21,8	-18,6
Dow Jones	-5,6	22,3	22,3	-1,0	-11,0	-23,2	-14,7	-11,1
Nikkei 225	-12,1	18,2	18,2	-1,9	-10,6	-20,0	-14,6	-7,5
Standard & Poors	-6,2	28,9	28,9	-0,2	-8,6	-20,0	-9,9	-5,8


(*) Hazkunde metatua urte hasieratik hilekoaren azken egunera arte.
Iturria: Europako Banku Zentrala (EBZ) eta Espainiako Bankua.

Mundu osoko burtsak amildu egin ziren martxoan. Apirilean, indizeak suspertzen hasi ziren, indar bereziarekin AEBetako parketetan. Europako indizeek, berriz, erritmo apalagoan egin zuten gora. Maiatzean, Standard & Poors indizeak goranzko bideari eutsi zion eta %4,5 igo zen, apirileko %12,7aren ondoren. Eurostoxx 50 europarrak ere %4tik gorako irabaziak izan ditu, baina azken bi hilabeteetako irabazi pilatuak apalagoak izan dira. Ibex 35 indizeak, berriz, %2,5 egin du gora, apirilean %2,0ko irabazia lortu eta gero, eta 7.097 puntutan kokatu da. Hala eta guztiz ere, urteko balantzeak negatiboan jarraitzen du eta Europako parketak oraindik urrun daude koronabirusaren aurreko maila berreskuratzetik.

Etxebizitzaren hipoteken bilakaera

Zenbatekoa (ezkerrean, milioiak) hipoteka kopurua (eskuinean, milak)

Euriborra 12 hilera



Iturria: INE eta Espainiako Bankua.

EBZk likidezia injekzioak bideratu dituen arren, bankuen arteko merkatuko interes tasek, hamabi hilabeterako euriborraren bidez neurtuta, goranzko bideari eutsi zioten apirilean eta maiatzean, eta -%0,081ean kokatu ziren maiatzaren amaieran. Igoera hori diferentzialaren gorakadaren ondorioa izan zen (kontraparte arriskua), tasa igoeren igurikimenean ondorioa baino gehiago. Euriborra Europako bankuek hamabi hilabeterako dirua mailegatzeko prest dauden interes tasa da. Europari buruzko atzeraldi ekonomikoaren aurrean erakundearen artean mesfidantza handiagoa dagoenez eta berankortasun tasak igoko direla aurreikusten denez, arrisku sariak gora egin du, eta horrek diferentziala handitzen du, eta horrekin batera euriborraren balioa ere bai. Izan ere, bankuen arteko merkatuaren tentsioak ekarri du igoera hori eta, ondorioz, datozen hilabeteetan adierazlea normaltasunera itzultzea espero da.

Martxoaren bigarren erdian, koronabirusa hipoteken merkatura ere transmititu zen. Etxebizitzen gaineko hipotekek %25,6 egin zuten behera eta berau egiteko orduan eskatu zen dirua aurreko urtekoa baino %20,3 gutxiago izan zen. Datu horiek apirileko eta maiatzeko kopuruek utziko duten jaitsiera askoz ere handiagoen aurrerapena baino ez dira, non hipoteken merkatura geldialdi teknikoan egon den. Hiruhilekoaren balantzea ez zen hain txarra izan, baina uzkurdua handiak jaso zituen. Zehazki, aurtengo lehen hiruhilekoan 4.483 hipoteka formalizatu ziren, hots, 2019ko epe berean sinatutakoak baino 648 gutxiago. Horrek esan nahi du %12,6ko beherakada izan zela, eta formalizatutako batez besteko diru kopurua, berriz, %7,6 jaitsi zela. Zenbaki absolutuetan, nolabaiteko hobekuntza nabari da 2019ko azken sei hilabeteetako datuekin alderatuta, baina gogoratu behar da erregistro horiek Higiezinaren Kreditu Legea indarrean sartzeak sortutako ziurgabetasunak baldintzatuta zeudela, milaka eragiketaren itxiera atzeratu baitzuen. Tasa finkoko hipotekak pisu handiagoa izaten jarraitu zuen guztizkoarekiko. Zehatz-mehatz adierazita, hipoteka guztien %44,1 tasa finkoan formalizatu ziren.

KREDITU ETA GORDAILUAK

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2018	2019	2019			2020		Aldea 2008-IV eta 2020-I	
			II	III	IV	I	I	Milioi €	Tasa
Kredituak	-3,4	0,1	-2,6	-4,1	0,1	-1,1	67.823,3	-19.596,3	-22,4
Arlo publikoa	8,1	6,6	-1,3	-3,8	6,6	-3,2	7.285,8	5.257,5	259,2
Arlo pribatua	-4,6	-0,7	-2,8	-4,1	-0,7	-0,9	60.537,5	-24.853,8	-29,1
Gordailuak	2,3	6,6	4,3	4,0	6,6	-0,1	83.855,3	7.511,7	9,8
Arlo publikoa	36,6	8,9	5,2	8,8	8,9	-17,4	3.887,9	-1.845,3	-32,2
Arlo pribatua	0,9	6,5	4,3	3,7	6,5	0,9	79.967,4	9.357,0	13,3
Agerikoak	6,6	11,4	8,8	7,9	11,4	4,8	67.930,1	40.942,6	151,7
Eperakoak	-17,3	-13,5	-13,0	-12,7	-13,5	-16,7	12.037,3	-31.585,6	-72,4

Iturria: Espainiako Bankua.

Covid-19k sortutako ezegonkortasuna eta ziurgabetasuna gorabehera, EAEko eragileek zorpetze maila jaitsi zuten berriro 2020ko lehen hilabeteetan. Zehazkiago adierazita, arlo pribatuaren zorraren zenbatekoa 60.537,5 milioi eurokoa izan zen, 2005eko hirugarren hiruhilekotik inoiz jaso duen baliorik txikiena baita, urtebete lehenago erregistratutako datua baino %1,1 txikiagoa eta aurreko hiruhilekoko balioa baino pixka bat txikiagoa. Zenbateko horrek esan nahi du bere zorra %29,1 murriztu dela 2008aren amaieran izandako maximotik eta haren zenbatekoa ia 25.000 milioi euro murriztu dela ordutik. Beheranzko joera hori sektore publikora ere zabaldu zen, haren

zorpetzea %3,2 jaitsi zelako. Honekin, bederatzi hilabetez jarraian gutxitu da zorpetzea. Izan ere, 2018ko ekainetik sektore publikoak 1.000 milioi euro baino gehiago murriztu du zorra.

Datu horiek erakusten dutenez, Covid-19ko pandemia ez da oraindik kreditu jardueran nabaritzen hasi, eta, beraz, Espainiako eta eurogune osoko finantza erakundeek espero dute apirila eta ekaina bitartean koronabirusaren ondorioak askoz modu nabarmenagoan eta biziagoan islatuko direla, bereziki finantzaketa eskariaren kasuan.

Burtsako merkatuen ezegonkortasunaren aurrean, aurreztaileek bankuen gordailuen aldeko apustua egin zuten berriro, inbertitutako kapitala bermatzen duten produktuak baitira, uneotan eskaintzen duten errentagarritasun eskasa ematen duten arren. Izan ere, gordailu pribatuak %0,9 hazi ziren eta 80.000 milioi euroren atalasea hurbildu ziren berriro. Beste hiruhileko batez, aurrerapen hori ageriko eta kontuan hartutako gordailuetan egindako ekarpenetan oinarritu zen, epera bideratutakoak %16,7 murriztu baitziren. Honekin sei urte dira etengabe uzkuratzen direla. Gaur egun, 12.000 milioi euro baino ez dira inbertitzen produktu horietan, baina boom ekonomiko betean pilatutako zenbatekoa 43.600 milioi eurotik gorakoa zen. Azkenik, sektore publikoak berriro desinbertitu zuen gordailuetan. Aurreko guztiaren ondorioz, gordailu guztiek %0,1eko jaitsiera izan zuten, 2015eko erdialdetik izandako lehen beherakada delarik.

Aurreikuspenak

Covid-19k azken ehun urteko munduko osasun krisirik handiena ekarri du eta eragin larria izaten ari da jarduera ekonomikoan. Oinarrizko eszenategi batean, pandemia murriztu egingo da eta 2020ko bigarren seihilekoan kontrolpean egongo da, eta eusteko neurriak pixkanaka kenduko dira. Suposamendu horiekin, munduko ekonomia %4,7 inguru jaitsiko da 2020an, eta %5,2era arte haziko da 2021ean, Consensus Forecastsen arabera.

Munduko hazkundeari buruzko aurreikuspenen inguruan zalantza ugari daude, ekonomiaren bilakaera aurreikusten zailak diren faktore zalantzarrien mende baitago. Pandemiaren hedapena eta intentsitatea, tratamenduaren eta txertoaren aurkikuntza, berreskuratze politiken eraginkortasuna, kontsumo patroietan izan daitezkeen aldaketak eta konfiantzan izandako eraginak dira gaur egungo proiektzio ekonomikoko edozein ariketari eragingo dioten aldagai ezezagunen adibide batzuk. Oso litekeena da 2020. urtean munduko ekonomiak atzeraldirik okerrena jasatea Depresio Handiaz geroztik, eta ekonomiaren beherakada bizia eta orokorra izango da herrialde guztientzat, nahiz eta larritasun maila desberdinekin. 2021era begira, susperraldi partziala aurreikusten da, baina BPGaren maila birusa baino lehenagoko mailen azpitik

mantenduko da eta berreraikuntzaren dinamismoari buruzko ziurgabetasuna handia da. Beheranzko arriskuak dira nagusi eta hazkunde zifra txikiagoak ekar ditzakete.

EKONOMIA AURREIKUSPENAK

Urte arteko aldakuntza tasak

	BPG			Kontsumo prezioak		
	2019	2020	2021	2019	2020	2021
Munduko ekonomia	2,5	-4,7	5,2	2,7	1,9	2,3
AEB	2,3	-5,6	4,4	1,8	0,8	1,8
Kanada	1,7	-6,6	5,1	1,9	0,7	1,7
Japonia	0,7	-5,3	2,6	0,5	-0,3	0,0
Eurogunea	1,2	-8,4	6,1	1,2	0,3	1,0
Europar Batasuna	1,5	-7,9	5,6	1,3	0,5	1,2
Alemania	0,6	-6,5	5,2	1,4	0,6	1,4
Espainia	2,0	-9,8	6,8	0,7	-0,2	0,8
Frantzia	1,5	-9,7	7,0	1,1	0,3	1,1
Herbehereak	1,8	-6,1	4,0	2,6	0,7	1,1
Italia	0,3	-10,7	6,5	0,6	-0,1	0,6
Erresuma Batua	1,4	-9,0	6,1	1,8	0,9	1,3
Asia eta Ozeano Barea	4,0	-1,2	6,1	2,2	1,9	1,7
Ekialdeko Europa	2,4	-4,8	4,2	5,5	5,1	4,7
Amerika Latinoa (Venezuela ezik)	0,7	-5,8	3,5	10,1	8,0	7,9

Iturria: Consensus Forecasts (2020ko ekaina).

Ekonomia aurreratuetan, 2020. urteko krisi ekonomikoa orokorra da. Herrialde askok biziki sufritu dituzte pandemiaren osasun ondorioak eta ondorio ekonomikoak. AEBetako ekonomia %5,6 uzkurtuko da eta Japoniakoa, berriz, %5,3, Consensus Forecastsen ekaineko panelaren arabera. Konfinamendua funtsezkoa da birusa geldiarazteko, baina mugikortasunari ezarri zaizkion murrizketek kalte handia egingo diote jarduera ekonomikoari. Bestalde, kontsumitzaileen eta inbertitzaileen konfiantzan izango dituen ondorio negatiboak hilabete askotan mantenduko direla aurreikusten da.

Azaleratzen ari diren eta garapen bidean dauden herrialdeek ere osasun eta ekonomia binomioa konpondu beharko dute. Kanpo eskariaren eta finantza baldintzen inpaktu negatibo larriaren ondorioz, haren hazkundera nabarmen murriztuko da. Txina nabarmenezkoa da, pandemiaren fokua izan zelako eta Covid-19ren enbidoa gairitu duen eta ekonomia lehenago suspertu duen

herrialdea delako. NDFk ekaineko txostenean aurreikusi duenez, Asiako erraldoiaren ekonomia %1,0 haziko da 2020an eta %8,2ra arte bizkortuko da 2021ean.

Gaur egungo osasun larrialdia Europan gertatu da bere ekonomia neurrizko urratsean hazten ari zenean eta oraindik ahultasun asko agertzen zituenean. Elementu horiek guztiek euroguneko ekonomia bere historiako atzeraldirik sakonenean dagoela iragartzen dute. Concepsus Forecastsek 2020an %8,4ko beherakada aurreikusten du Europako moneta bakarraren eremuan, eta hazkunde erritmoa %6,1ra bizkortuko dela 2021ean. Datu horiek susperraldiak U baten forma izango duela iradokitzen dute, eta 2021. urtearen amaieran ez direla lortuko pandemia baino lehen zeuden ekoizpen mailak. Birusaren shocka estatu kide guztietan antzekoa bada ere, berreraikuntza asimetrikoa izango dela uste da. Larrialdi honen irteera ez da soilik osasun inpaktuaren edo eusteko aplikatuko diren neurrien araberakoa izango, baita hasierako baldintzen eta sare sozial eta ekonomikoaren gaineko ondorio dramatikoak arintzeko toki bakoitzean aplikatutako politiken araberakoa ere. Hala ere, Europako politika bateratuen ezarpena inoiz baino beharrezkoagoa da Europar Batasunaren historian.

ESPAINIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2020ko ekaina)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020			2020	2021
	II	III	IV		
BPG	-13,0	-11,2	-7,1	-8,9	7,5
Kontsumo pribatua	-14,5	-11,4	-6,8	-9,8	8,9
Kontsumo publikoa	6,0	1,0	0,9	2,9	0,2
Kap. finkoaren eraketa gordina	-13,4	-10,2	-5,5	-8,9	7,9
- Inbertsioa ekipamenduan	-19,3	-16,2	-10,1	-12,5	11,0
- Inbertsioa landutako aktibotan	1,1	-0,5	-1,5	1,5	1,9
- Inbertsioa eraikuntzan	-15,1	-10,4	-4,7	-10,6	8,2
Barne eskaria	-10,2	-8,8	-5,1	-7,1	6,7
Esportazioak	-24,9	-22,1	-16,9	-17,6	10,0
Inportazioak	-17,4	-15,7	-11,9	-13,1	7,2

Iturria: Ceprede.

Espainiako ekonomiaren hazkunde aurreikuspenak, Consensus Forecastsek aurreikusitakoak, tasak -%9,8 2020an eta %6,8, berriz, 2021ean finkatu ditu. Cepredek, bestalde, -%8,9ko beherakada ezarri du 2020rako eta hazkundera %7,5era igo du 2021erako. Hiruhileko profilari

dagokionez, oso tasa negatiboa espero da 2020ko bigarren hiruhilekoan, eta hirugarren eta laugarren hiruhilekoetan positiboa izango da. Analista guztien arabera, kontsumorako eta inbertsiorako eskari pribatuaren osagai guztiek narriadura larria pairatuko dute. Hazkunde positibo bakarra kontsumo publikotik etorriko da, jarduera ekonomikoari laguntzeko neurrien implementazioak eragindakoa. Erakunde guztiek, aurreikuspenak egiteko orduan, ziurtzat jo dute administrazio guztien defizit publikoa handituko dela. Barne uzkurduraz gain, kanpoko ingurunea ere negatiboa izango da Espainiako ekonomiarentzat.

Lan arloko testuinguruan, Cepredek, lanaldi osoko lanpostu baliokideei dagokienez, -%7,8ko beherakada aurreikusten du 2020an eta enpleguak, berriz, %6,1 egingo du gora 2021ean. Langabezia tasaren bilakaerari buruzko aurreikuspenek adierazten dute 2020an %19,9rainoko hazkunde profila egongo dela eta pixkanaka behera egingo duela 2021ean, urteko batez besteko tasa %14,2an kokatu arte.

EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK HIRUHILEKOKA (2020ko ekaina)

Urte arteko aldakuntza tasak

	2020			2020	2021
	II	III	IV		
BPG	-13,4	-10,3	-7,8	-8,7	6,7
Azken kontsumoa	-11,0	-8,5	-6,5	-7,3	6,2
Kontsumo pribatua	-16,4	-11,8	-9,1	-10,5	8,5
Kontsumo publikoa	9,2	3,8	3,3	5,1	-1,7
Kapital eraketa gordina	-15,7	-11,2	-8,0	-9,6	7,1
Barne eskariaren ekarpena	-12,4	-9,4	-7,0	-8,0	6,6
Kanpo saldoaren ekarpena	-1,0	-0,9	-0,8	-0,7	0,1
Lehen arloa	-9,6	0,5	-9,6	-3,8	8,4
Industria eta energia	-12,9	-8,6	-6,2	-7,8	6,4
Eraikuntza	-8,6	-5,6	-4,8	-5,4	4,6
Zerbitzuak	-13,9	-11,1	-8,3	-9,0	6,9
Balio erantsi gordina	-13,3	-10,1	-7,6	-8,5	6,7
Ekoizkinen gaineko zergak	-14,3	-12,0	-9,1	-10,1	6,5
BPGaren deflatoarea	-1,5	-1,1	0,3	-0,4	1,3
Lanaldi osoko lanpostuak	-10,7	-8,5	-5,7	-7,0	5,4
Landunak (BJA)	-4,8	-7,8	-6,3	-4,6	1,8
Langabezia tasa	13,9	15,8	15,3	13,7	12,2


Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Egungo egoera ekonomiko aldakor eta zalantzarik, eta ekainera arte eskuragarri dagoen informazioarekin, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eguneratu egin du 2020-2021 aldirako EAEko ekonomiaren taula makroekonomikoa. Hasierako suposamenduak osasun larrialdiaren faseei dagokienez ezarritako hasierako egutegia eta ekainaren amaieran normaltasun berria sartzea dira. 2020rako hazkunde-aurreikuspena urteko $-8,7\%$ jaitsi da. 2021ean, jarduera ekonomikoak gora egingo du eta hazkunde tasa $6,7\%$ izango da. Hiruhileko bilakaerak erakusten du 2020ko bigarren hiruhilekoan beherakada handia izango dela eta hortik aurrera hiruhileko arteko tasa positiboak espero dira. Hala eta guztiz ere, pandemiaren aurreko BPGren mailak oraindik ez dira lortuko egungo koadro makroekonomikoan aurreikusitako denbora horizontearen amaieran.


Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenek muturreko posizioa dute beste erakunde batzuek argitaratutako zenbatespenen artean. 2020. urterako, aurreikusitako balioen urkila Afiren $-7,3\%$ eta Eusko Jaurlaritzaren $-8,7\%$ artekoa da. 2021erako aurreikuspenak BBVAren $5,8\%$ eta Eusko Jaurlaritzaren $6,7\%$ artekoak dira.

2020ko eta 2021eko aurreikuspenak Urte arteko aldakuntza tasak

Aurreikuspen panela 2020



Aurreikuspen panela 2021



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza (2020ko ekaina, CEPREDE (2020ko maiatza), BBVA (2020ko apirila) eta Afi (2020ko maiatza).


Eskariaren osagai guztiek geldialdi ekonomikoaren eragina jasango dute, administrazio publikoen kontsumoak eta inbertsioak izan ezik, horiek eragile egonkortzaile gisa esku hartzen baitute.

Familiaren kontsumo gastua %10,5 jaitsiko da 2020an. Jaitsiera, batez ere, aurtengo bigarren hiruhilekoan gertatuko da eta neurri murriztaileak altxatzen diren heinean, bizkortzen joango da. Hala eta guztiz ere, susperraldia ez da osoa izango, zenbait jardueratan (bidaiak, ostalaritza, aisialdia...) egindako gastuak nolabaiteko normaltasuna berreskuratu arte denbora beharko duelako. Halaber, ziurgabetasunak kontsumitzaileen konfiantza gutxituko du eta jokabide eredu jakin batzuei epe laburrean eragingo die.


Bestalde, kapital eraketa gordina 2020an %9,6 jaitsiko dela aurreikusten da. Perspektiben arabera, konfinamenduaren ondoren gorakada bat gertatuko da. Hala ere, ziurgabetasuna ere izango da etorkizuneko bilakaeraren protagonista. Enpresen jarduerari buruzko panorama zalantzarria dela eta, inbertsio planak atzeratu edo bertan behera utz daitezke. Susperraldian paper garrantzitsua izango dute jardueren bultzatzeko diseinatuko diren politika ekonomikoek, behin pandemiaren lehen enbidoa gaindituta.

2020ko eta 2021ko aurreikuspenak Urte arteko aldakuntza tasak

Barne produktu gordina



Enplegua



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.

Eskaintzaren datuetan, jarduera adar guztiek balio erantsi gordinaren hazkunderari ekarpen negatiboak egitea aurreikusten da. Ekoizpen sektore guztietarako, 2020ko bigarren hiruhilekoan intentsitate handiz jasoko da EAEko ekonomiaren hibernazioa. Pandemiari eusteko aplikatutako neurriek industriari eta zerbitzuei eragingo diete gehien. Aurtengo bigarren seihilekoan, jarduera

ekonomikoa pixkanaka berreskuratzen hasiko dela eta suspertzeko joera hori 2021ean finkatuko dela aurreikusten da.

Enpleguari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren egungo aurreikuspenek 2020rako %7,0ko beherakada espero dute eta 2021erako, urteko batez besteko aldakuntza tasa %5,4 izango da. Tasa horiek 2020an lanaldi osoko 68.000 lanpostu baliokide inguru suntsitzearen eta 2021ean 48.000 lanpostu inguru sortzearen parekoak dira. Horrek ez du esan nahi hori denik aurten enplegua galduko duten edo datorren urtean enplegu bat lortuko duten pertsonen kopurua, baizik eta 2020an 2019arekin alderatuta egingo ez diren edo 2021arekin alderatuta beharko diren enplegu kopurua (lanaldi osoko urteko lanaldietan taldekatutako lanorduak).

Lana galduko duten landunen kopurua aipatutakoa baino txikiagoa izango da, haietako askok enpresari lotuta jarraituko baitute ABEEEak erabiltzeari esker. Zehazki, urte honetarako, landunen kopurua, urteko batez bestekoan, %4,6 murriztea espero da, 2019ko batez bestekoarekin alderatuta. Hau da, eragina 43.300 pertsonakoa baino zertxobait handiagoa izango litzateke. Ondoren, 2021ean, 16.100 pertsona gehiago (%1,8) egongo dira enpleguan.

Langabezia tasari dagokionez, aurreikuspenek ere nabarmen egin dute okerrera eta 2020an urteko batez bestekoa %13,7koa izango dela kalkulatu da eta %12,2ra arte hobetuko dela 2021ean.